guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2021-10-29 OSTIRALA / 793. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Gauerako aterpea

Etxegabeen aterpearen martxa kudeatzaileak azalduta / 8-9

Lau udalek elkarlanean sustatutako GR 323 ibilbidea mustu dute / 11

Erosketetarako Altsasu Sakanako erreferentzia puntu gisa sendotzeko plana / 6

Ezkurdiak Altunaren kontra jokatuko du final kutsua duen Lau eta Erdiko finalerdia / 16

Ane Martija kantautorearen kontzertua izanen da, astelehenean, Irurtzunen / 21

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna dela eta, topaketa Olaztin / 12-13

Jose Luis Arrieta kirol zuzendaria, Movistar Team taldetik kanpo / 20

Bartzelonako Cor Vivace abesbatza "bereziaren" emanaldia igandean, Lakuntzan / 23

Arkaitz Flores Mazkiaran zutik eskuinean eta Itsaso Ginea Berastegi eserita espedizioko lankideekin Senegalgo ospitalean. UTZITAKOA

Beharrezko bidaiak

Itsaso Ginea Berastegi erizain arbizuarra eta Arkaitz Flores Mazkiaran erizain laguntzaile altsasuarra hamar egunez Senegalen egon dira haur eta gazteei ebakuntzak egiten

Eneida Carreño Mundiñano / Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU/ALTSASU

Dagoeneko heldu den urteko espedizioa prestatzen ari dira, eta Senegaletik etorri berriak dira Itsaso Ginea Berastegi arbizuarra eta Arkaitz Flores Mazkiaran altsasuarra. Biek Nafarroako Ospitaleko Virgen del Caminon lan egiten dute, ebakuntza geletan, erizain eta erizain laguntzaile, hurrenez hurren. Hamar egunez Iruñeko ospitaleko operazio gelaren erosotasuna eta beharrezko material guztia utzi, eta Senegalgo Saint-Louis hirira joan dira Hope and progress Gobernuz Kanpoko Erakundearekin bertako haurrei eta gazteei laguntzera. Ginearen bigarren espedizioa izan da Afrikara, Floresena lehenengoa.

"Eguzkitik eguzkira" lan egitera joan dira Senegalera, hamar egunez. 2019. urtean joan zen arbizuarra lehenengo aldiz Afrikara. Orduan Ganbiara joan zen. "Kasualitatea izan zen. Orduko nire buruarekin hitz egin nuen". Elkartasuna eta kooperazioa etxean jaso dituen baloreak direla esan du Gineak, "eta beti interesatu zait". Bere nagusiari laguntzeko aukeraren bat ateratzen bazen esateko komentatu, eta Carlos Bardají Nafarroako Ospitaleko zirujau pediatrikoko buruarekin harremanetan jarri zuen. Bardajík Hope & Progress GKE sortu zuen eta dagoeneko 1000 ebakuntza baino gehiago egin ditu Senegalen eta Ganbian. Bartzelonako lagun batekin sortu zuen, Afrikara lehenengo espedizio bat egin ondoren. "Biak bakarrik joan ziren, eta pixkanaka jendeak laguntzera joan nahi zuela esaten zieten". Horrela sortu zuten Hope & Progress.

"Ganbiara joan ginen eta kristoren esperientzia izan zen". Esperientziaren nondik norakoak Floresi kontatu zizkion, "burua berotu", eta horrela animatu zen altsasuarra ere. "Horrela izan zen pixka bat, bai. Aurreko aldian joan zirenean horri buruz hitz egiten zuten, eta azkenean berotu nintzen ni ere. Goazen esperientzia hori bizitzera". Irailaren 25ean GKEren 28. espedizioan joan ziren bi sakandarrak Senegalera.

Elkartasuna

Ebakuntza sailean, Gineak eta Floresek gertutik ezagutzen dutena, horrelako erakundeetan parte hartzeko oso "proaktiboak" direla aipatu du arbizuarrak. "Duela pare bat aste itzuli gara. Gu joan gara kirurgia pediatrikoa egitera, baina hilabete bukaeran beste GKE batekin traumatologia talde bat doa". Talde honek beste gauza batzuk egingo dituela azaldu du, "baina toki antzekora doaz, Senegalera". Aurten Hope & Progress erakundeak hiru kanpaina egin ditu, irailekoa, urtean hirugarrena.

Beharren araberako espedizioak izaten dira. "Ebakuntza gelaren barruan lan egiten ikusten gaitu. Futbol partida batean bezala da, bera ikuskaria da eta berak erabakitzen du nork jolasten duen eta nork ez", azaldu du Gineak. "Ulergarria da bere ardurapean joaten garelako. Bera da burua eta berak egiten du guztia". Kanpainan parte hartzen dutenen "perfil jakin bat" izan behar dutela aipatu du Floresek. "Lana egitera zoaz, hemen bezala, baina hango egoerarekin". Joan aurretik batak eta besteak nola egiten zuten lan bazekiela esan du; "zer maila eman genezakeen eta zer espero zezakeen gugandik".

Afrika

"Hemen egiten dugun lan bera egitera goaz". Baina baldintza desberdinetan. Aurretik ez dute formazio berezirik jasotzen. "Gure esperientzia besteei kontatu diegu". Lehenengo bidaian, beraz, "ea zer aurkituko duzun"

"GANBIARA JOAN GINEN ETA KRISTOREN ESPERIENTZIA IZAN ZEN"
ITSASO GINEA BERASTEGI

SENEGAL



beldurrarekin joan dira biak, eta horregatik aurkituko dutena aurretik ezagutzea nahiago dutela esan du: "Errealismo asko ematen diozu", esan du Floresek. "Joaten zara pentsatzen hemen bezala lan egitera joan behar duzula, baina ez". Afrikara doaz "Laguntzera joaten zara, baina material justuarekin".

Bidaia "luzea" izan zela aitortu dute. "Baina ongi". 07:00etan atera ziren Euskal Herritik eta bertako 04:00etan iritsi ziren. Bidaiaren gastu gehienak haien poltsikoetatik ateratzen dira, "eta merkeago ateratzeko, dagoena da". GKE bat denez, boluntarioak eta dirulaguntzak daudela azaldu dute. Esaterako, Andra Mari ikastolaren laguntza jaso zuten. Ikastolan bildutako materiala eraman zuten ere. "Inplikatu dira, eta oso pozik", esan du Gineak.

Hara iritsi eta lehendabiziko inpresioa "zenbat pobrezia eta daukaten gutxi horrekin zein pozik bizi diren" izan zela azaldu du Floresek. "Denak baloi batekin korrikan leku batetik bestera, gu txikiak ginenean bezala". Kaletarrak, kaleaz gozatzen. Hori ikusi zuten. "Miseria handia dute, baina zoriontsu dira".

Lehenengo egun horretan goizean goiz iritsi zirenez haien buruei deskantsatzeko "tarte txiki bat" eman zieten, "baina gutxi", laster ospitalea ezagutzera joan zirelako. Ginea: "Ez dela berez ospitale bat". Saint-Louisen zeuden, Mauritaniarekin mugan dagoen hiri bat. Arezko mihi bat bezalakoa da, eta dena "area eta itsasoa" da.

Saint-Louiseko arrantzaleen kalean zeuden, hain zuzen, Floresek azaldu duenez, "pobrezia gehien zegoen tokian". Ebakuntzak egin behar zituzten gela erditze-gela baten antzekoa zen, "zikina", eta lehenengo egunean "dena garbitu" behar izan zuten. Ginea: "Eta erabaki nola muntatu ebakuntza gela bat bertan; ez dagoelako ezer". Zerotik operazio gela bat egin behar zuten. "Ohatila bat zegoen. Ez zegoen urik ere".

"LANA EGITERA ZOAZ, HEMEN BEZALA, BAINA HANGO EGOERAREKIN"
ARKAITZ FLORES
MAZKIARAN

ZEROTIK OPERAZIO GELA BAT EGIN BEHAR ZUTEN: "OHATILA BAT ZEGOEN. EZ ZEGOEN URIK ERE"

Haien rolak zeintzuk ziren "gutxi gorabehera" ezagutzen zituztela azaldu du arbizuarrak. "Baina zer egin behar genuen ez genekien". Flores: "Erakundearen presidentea espedizioa joan aurretik joaten da kontsulta pasatzera, beraz, badaki zeintzuk diren gutxi gorabehera artatu beharko diren haurrak eta zer ebakuntza egin beharko diren". Lehenengo egunetarako plangintza bat egiten du. "Lehenengo egunetarako erabiltzen dugu, azaldu du Gineak. Operazio gela muntatzen zuten bitartean kontsulta pasatzen aritu zela esan du. "Lehenengo egunean bete genituen operazio guztiak ia aste osorako".

Baldintzak

Ura eta elektrizitatearen falta sumatu dute gehienbat. "Ur iturri bat zabaldu ahal izatea. Hori izan da hutsunerik nabarmenena". Ura "balde batetik" hartzen zutela esan dute. "Azkenean buruari bueltak emanez lortzen duzu ura. Kanpin batean bezala", azaldu du altsasuarrak. Dutxa hoberena euria egin zuenean hartu zutela esan du Gineak. Argia noizbait joan zitzaiela ere esan dute. "Bi ebakuntzaren erdian, gainera". Frontalak jarri, eta aurrera egin zuten.

Senegalgo osasun sistema pribatua da, eta sakandarrak egon diren tokian sisteman sartzeko zailtasunak dituztela esan dute. "Guztia musutruk eman dugu, bestela beraiendako dirua da eta askok ez dute ahalmenik", azaldu du Gineak. Minarendako analgesikoa eros dezakete, gehienez.

Egiten zituzten ebakuntzak "maila txikikoak" ziren. "Baina batzuetan marroiren batean sartzen gintuzten; pixka bat tentsioan jartzen gintuztenak". Berez ebakuntzak ez ziren konplikatuak, baina baliabide eskasa zailtasun handiena zen. "Gauza konplikatzen bada, okerrera joaten da dena". Floresek azaldu duenez, hemen lan egitera ohituta daude, eta zerbait gaizki ateratzen bada, "edozein momentutan beste lankideren baten edo material espezifikoaren laguntza izan dezakezu". Han dagoena, dagoena da. "Tentsioa eta adrenalina" handiko lana izan da. Ginea: "Orduan, dauden baino okerrago utzi behar ditugu?". Aurretik kasu bakoitza aztertzen dutela esan dute. "Denen arteko kontsentsu batetik ateratzen dira interbentzioak. Bai edo ez erabakitzen dugu". Denek hitz egiten badute ere, zirujauak eta anestesistak dira gehien hitz egiten dutenak.

Egun osoa ebakuntzak egiten pasatzen zuten. 07:00etan iratzargailuak jotzen zien, "beno, gosaria 07:00etan hartzen genuen, hobeki esanda". Gosaltzen zuten eta jana hartzen zuten. Lo egiten zuten tokitik inprobisatutako ospitalera 20 minutu zituzten oinez, eta gutxi gorabehera 19:30ean itzultzen ziren etxera.

Irakasleak

Ginea eta Flores sakandarrekin batera Nafarroako Ospitalean lan egiten duten lankideek eta Kataluniako eta Madrileko profesionalek osatzen zuten espedizioa. "Aniztasuna egon da, oso aberatsa izan da". Lan egiteko orduan "espero ez genituen" rolak hartu dituztela azaldu du Gineak, "eta oso interesgarria izan da aurreiritziak haustera ere behartu gaituelako". Esperientzia, alde guztietatik begiratuta, indartsua izan da.

Elkar komunikatzeko frantsesa erabiltzen zuten, eta haiekin itzultzaile bat zegoen. "GKE honek ere ona daukana da ez goazela bakarrik bertan zenbait gauza egitera eta listo. Bertako bi pertsona egon ziren gurekin ikasten", azaldu du Gineak. Bat anestesistarekin egon zen eta bestea Floresekin: "Edozein laguntza ongi etortzen zaizu. Haiek ziren familien eta gure arteko bitartekariak". Edozein laguntza ere ongi datorkie.

Itsaso Ginea Berastegik Hope & Progress GKEk ebakuntzak egin ditu Senegalen. UTZITAKOA

Arkaitz Flores Mazkiaran, lehen planoan, Itsaso Ginea Berastegi, ezkerretik hirugarrena, eta lankidean Senegalen. UTZITAKOA

Hamar egun egon dira, baina harreman oso onak egin dituzte. Ginea: "Badaude milaka istorio, baina batzuek bereziki ukitu gaituzte. Adibidez, bazegoen zortzi urte inguruko ume bat egunero etxetik lanera joaten ginenean, txanda desberdinetan bazen ere, bertan egoten zena argazki kamera txiki batekin". Ikusten zituenean kameran klik egiten zuen. "Baina ez zeukan argazkirik". Jostailuzko kamera bat zen, eta egunero itxoiten zien. "Foto, foto esaten zigun". Azken egunean beraiengana joan ziren azken eguna zela esatera, "eta negarrez hasi ziren, eta gu ere bai". Egunerokotasunean horrelako istorioak bizi izan dituztela esan dute. "Azken egunean agur festa bat egin ziguten eta auzokide guztiak etorri ziren. Beren hizkuntzan eskerrak ematen zizkiguten".

Beharra

Senegalgo espedizioan parte hartzeko bi sakandarrek oporretako egunetatik eta lankideekin txandak aldatuta lortu dituzte bidaiarako egunak. Afrikara zihoazela baliatuz, laneko hamar egunen ondoren, herrialdea ezagutzeko bost egun gehiago gelditu ziren bertan. "Urteko egutegi osoa aldatu genuenez, aprobetxatu genuen". Pandemia egoera zela eta aurten egutegia prestatzea zailagoa izan dela azaldu du Gineak, "lankideek azken momentura arte ez zekitelako oporrak eman zizkieten edo ez". Senegalera joateko txertoa txartel bat eraman behar izan dute. Sukar horirako txertoa jarri behar izan dute, eta malariarako Malarone izeneko pilulak hartu behar izan dituzte. "Egunero pilula bat, joan aurretik, han geundela eta bueltan".

Afrikatik itzuli berri dira, baina dagoeneko itzultzea pentsatzen ari dira. "Ahalik eta listoen, hobeki. Ahalko banu...", esan du Gineak. Laguntza eta beharra duen beste herrialde batera joateko prest daude, baina "joan eta etorri ibiltzeko". Argi dago esperientziak "kateatzen" duela. "Jendeari esaten nion: Afrikara joan behar dut, eta arrazoi gehiago pandemiarekin, desintoxikatzera hemendik joan behar dut; burua garbitu eta buelta". Bizitza begiratzeko beste modu bat eskaini die esperientziak. Lan egiten aritu diren arren, "errutinatik ateratzeko" aukera eman die, Floresek esan duen bezala: "Lagunekin joan gara eta barre asko ere egin dugu". Lagunek galdetzen diotenean "bueltatzeko gogoarekin" gelditu dela erantzuten du.

"Kontzientziatzeko aukera ere ematen du. Hemen duguna ez dela egia konturatzeko. Errealitate puntu bat eman behar diogu bizitzari". Espedizioaren ondoren "aldatuta" etorri dira. Gauzei beste balio bat ematen diote. Horregatik ere itzuli ondoren lehenengo astea "oso gogorra" izan zela esan dute. "Orain oso gertukoa dugu, eta lanean esan ziguten lurreratu beharko genukeela". Hemen dagoen "xahutzea" aipatu dute aste gogorra izatearen arrazoietako bat. "Baita bertan denek agurtzen gintuztela, eta hemen, inork ez; jendea telefonoarekin doa". Hala ere, denborarekin "ahaztuko" zaiela aipatu du Gineak. "Zertzelada batzuk dira, eta ahazten joango gara".

Turismoa

Hamar egunez Saint-Louisen lan egin ondoren, Ginea eta Flores Dakarren egon ziren. "Lankideak agurtzera joan ginen, eta gu bertan gelditu ginen". Bizitutako esperientziatik "deskantsatzeko eta hausnartzeko" ongi egon zen turismo pixka bat egitea ere. Senegalgo hiriburuan ikusi zituzten gauzen artean Floresek portuan bizitutako esperientzia nabarmendu du: "Kayukoak ateratzen ikusten genituen. Hango arrantzaleak dira eta gauez arrantzatzera joaten dira. Hor genbiltzan eta bat-batean amona bat arraina garbitzen ikusten zenuen, eta zure gainean erortzen zen guztia. Zig-zag egiten ibili behar izan ginen mugitzeko". Momentu handia izan zela aipatu du. Gineak Ile de Goree aipatu du: "Bertatik bidaltzen zituzten esklaboak Ameriketara". Heldu den urteko irailean itzultzea espero dute.

EBAKUNTZAK "MAILA TXIKIKOAK" ZIREN, BAINA "TENTSIOAN" JARTZEN ZIETENAK IZAN DITUZTE ERE

BIZITZA BEGIRATZEKO BESTE MODU BAT ESKAINI DIE ESPERIENTZIAK, ETA ITZULIKO DIRA

Arkaitz Flores Mazkiaran Senegalgo haur batekin. UTZITAKOA

ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Euskaldunak gara, nafarrak gara!

Topagune euskaltzaleen mugimenduak antolatuta, Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak izeneko jardunaldia burutu zen urriaren 14an, Iruñeko Kondestable jauregian. Ponentzietako batean, Xabier Erize soziolinguistikan doktoreak euskararekin kontakturik ez duten nafarrek euskararekiko duten jarreraren gaineko azterketa esploratorio baten emaitzak azaldu zituen. Ustekaberik ez. Ziurrenik, euskalgintzan aurretik ere susmatzen zirenak baitziren, baina datu esplizituak ziren.

Pare bat nabarmentzeagatik, lehenengoa, euskarak Nafarroako populazioan duen irismen gaitasuna % 30era mugatzen da, izan ere, beste % 70 nahikoa errefraktarioa da. Ikastetxeetako euskarazko matrikulazioetako datuak, sabai gaindigaitza bihurtu dena. Bigarrena, euskararekiko jarrera urruna azaltzen duten horiek diote euskararen sustapena ideologia eta jarduera politika jakin batzuetatik egiten dela, eta horregatik ez dela erakargarria haiendako.

Beste alde batetik, datu horiek bat egiten dute Eusko Ikaskuntzaren *Nafarroako aniztasunaren kudeaketa demokratikoaren proiektua* lanetik ateratako datuekin. Hau da, 2021. urteko naziometroan nafar-espainiar-euskal herritar identitate sentimenduari buruz galdetuta, % 89k nafar ikusten du bere burua (Nafarroan nafar sentitzea guztiz normala), %68k espainiar, eta % 33k euskal herritar. Bestalde, soilik nafar %7k, soilik espainiar % 3k, eta soilik euskal herritar %1ek.

Azterketa esploratorio xumea izan arren, gakoren bat iradokitzen du, hau da, nafar guztiek euskara haien ondare sentitzeko, euskara kultura elementu gisa indartu behar da, nafar guztiona izanen dena. Hori horrela, alde batetik, argi dago espainolismo hegemonikoak euskararen aurka darabilen gurutzada indargabetu beharko litzatekeela; baina, bestetik, ematen du mundu abertzaleak gogoeta sakona egin beharko lukeela Nafarroan darabilen diskurtsoari buruz, Euskaditik inportatuak muga zehatzak baititu.

Nafarroak, berez, aski pertsonalitate historikoa eta juridikoa du eta, beharbada, euskararen sustapena nafartasunari gehiago lotu beharko litzaioke. Horrela bat-bateko burutazioa, Nafarroan gaudelarik, zein lelok izanen luke irismen handiagoa, "Euskal Herrian euskaraz!" aldarrikatzeak ala, adibidez, "Euskaldunak gara, nafarrak gara!"? Gogoetarako puntua, besterik ez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Altsasuko kuadrillen prozesua

ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Gaurkoan Altsasuko Gazte Asanbladak aurreko ikasturteko kuadrillen prozesuaren zergatiari buruz hitz egitera gatozkizue. Azkeneko urte eta erdi hau bizi izan dugun zailenetarikoa izan da, gehienbat COVID-19ak azkartutako krisi kapitalista bete betean pairatzen ari garelako. Zentzu honetan, gure begiekin ikusten ari gara nola inguruko bizi baldintzak okertzen doazen, gazte langileongan batez ere.

Independizatzeko gaitasun ezak edota familiarekiko lotura ekonomikoak egunerokotasunean gazteok ditugun bizi baldintzak azaleratzen ditu. Hau ausazkoa izatetik haratago doan logika baten pean baino ezin da ulertu: burgesiaren etekinak ahalik eta handienak izatea bermatzeko gazteok funtzio ekonomiko bat betetzen dugu gizartean; soldata baxuen edota ordaindu gabeko praktiken bidez, adibidez.

Hartara, okertze unibertsal horren jakitun, herriko gazteriarekin prozesu bat abiarazi genuen. Lehenengo fasea, kuadrillen identifikazio eta biltzean zetzan, kuadrillako pertsona bakoitzak inkesta bat betearazteko asmoarekin. Galdetegi horretan, etxebizitza, ikasketa/lana, aisialdi eta Gazte Asanbladari buruzko galderak egin ziren. Hastapeneko fase honen xedeak, batetik, gazteekiko hurbiltasuna lortzea zen; bestetik, koiuntura lokala ezagutzeko datuak eskuratzea. Martxoan jarri genuen prozesua martxan eta urriaren hasieran, lehen fasea bukatutzat eman genuen 100 kuadrilla ingururekin lan egin ondoren.

Jada bigarren fasean murgildurik gaude, azken hilabeteetan jaso ditugun datuak analizatu eta interpretatzen. Beraz, esan beharrik ez dago hurrengo hilabeteetan gure jardunaren berri izaten jarraituko duzuela.

OBJEKTIBOTIK

Tapoia kendu dute Urdalurren

Urdalurreko urtegira inguratzen den guztiak ikus lezake ur falta nabaria dela. Antzinako etxolak agertu dira eta beheko lokatzak ur gabe ageri dira. Bainuontziko tapoia kendu dutela dirudi, ur guztia hustuz, eta argazkian ikus dezakezue tapoi irekia dirudiena.

Lanak egiteko hustu dute Urdalur, urarekin kontaktuan dagoen paretan hormigoia sartzeko. Gehiago jakin nahi izanez gero, ikus 7. orria.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Joan den urteko saria, zilarrezko barkilloa edo tazatxoa. ARTXIBOA

Sakana Sariaren deialdiak aldaketak dakartza

Astelehenera arte hautagaitzak aurkezteko aukera dago. Sari nagusia eta aipamen berezia izanen dira

SAKANA

Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren ekimenez sortu ziren Sakana Sariak joan den urtean. David Oroz Alonsok, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak azaldu duenez, "Sakana Sarien helburua eta abiapuntua gure ibarrean egiten den lanari aitortza egitea da. Sakanak baditu hainbat bereizgarri, eta horietan nagusia, sakandarrak dira: sakandarren ekimena, sakandarren antolakuntza gaitasuna, sakandarren lana. Hori da Behatokiak saritu nahi duena. Eta, hori, nola ez, sakandarren parte hartzearekin egin nahi dugu".

Sariak estreinakoz joan den urtean banatu ziren. Pandemia betean jendaurrean lan egiten zutenendako maskarak eta osasun arloko medikuendako batak josi zituzten boluntarioak, SakanaMaker eta Sakanako jostunak, izan ziren sarituak. Epaimahaiaren arabera, "ekarpen oparoa" egin zuten.

Sariketako epaimahaia Sakanako Sozioekonomia Behatokiko eragileen ordezkaritza batek osatuko du eta ekimen sarituaren aukeraketa epaimahai horrek berak eginen du. Epaimahaia honakoek osatuko dute: Sakanako tokiko administrazioko 4 ordezkarik eta Guaixe fundazioa, Sakanako Enpresarien Elkartea, Bidelagun turismo elkartea, Belardi, Sakanako ekoizleen elkartea eta Sakanako Dendari, Ostalarien eta Zerbitzuen elkartearen ordezkari banak.

Berrikuntzak

Aurtengo Sakana Sarien edizioak hainbat berrikuntza izanen ditu. Alde batetik, sari nagusiaz aparte, aurkeztuko diren ekimen guztien artean herri bozketa eginen da eta ekimen bozkatuenak aipamen berezia jasoko du. Gainera, Sakana Sarietarako proposamenak egiteko aukera izango dute sakandarrek *www.sakanagaratzen.com* webgunean dagoen galdetegia betez, astelehenean bukatzen da epea.

Jasotakoen artean epaimahaiak Sakana Saria aukeratuko du, eta herri bozketa bidez aipamen berezia banatuko da. Aipatu web orrian azaroaren 3tik aurrera eginen da bozketa publikoa. Sari banaketa, irekia izanen da, azaroaren 18an, Lakuntzan.

Balioak eta helburuak

Sakana Sarien bigarren edizioan ere aitortza eginen zaie gizarte, ingurumen eta ekonomian eragin positiboa izan duten erakunde edo ekimen kolektiboei, irabazi asmoa izan edo ez. Sariak banatzerakoan kontuan izanen dituzten baloreen artean dago dinamismoa eta erresilientzia gaitasuna izatea oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Gainera, baloratuko da aniztasuna aberastasun kolektibo gisa ikusia izatea. Eta, azkenik, elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrak lehenetsiz. Horretarako funtsezko elementuak dira komunitatearen lana (auzolana) eta herri ondasunak (komunala).

Merkataritza Plana onartu du udalak

Planak Altsasu erosketetarako Sakanako erreferentzia puntu gisa sendotu nahi du. Horretarako, hiru ildo estrategiko eta hamar jarduera ardatz ezarri ditu. Gaur egun 163 establezimendu daude: 81 merkataritza, 31 ostalaritza eta 51 zerbitzuak

ALTSASU

Altsasuko Dendarien Elkarteak bultzatuta, eta Altsasuko Udalak sustatuta, herrian dagoen eskaria eta eskaintza aztertu ondoren, Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeko Plana egin da. Planaren helburua da altsasuarrek bertan kontsumitzen jarraitzea eta bisitatzen dutenak erakartzea lortzea, herria animatuz eta integratuz.

Diagnostikoak agerian utzi du erosketak herritik kanpo egiteko ohitura oso errotua dagoela ibarrean, batez ere norberaren eta etxeko ekipamenduarekin lotutako produktuei dagokienez. Iruñeko eta Gasteizko merkataritza eremuak erreferente argia dira Altsasuko eta Sakanako gainerako herrietako biztanleendako. Herritik kanpo erosteko ohitura bereziki nabarmena da gazteen artean (18 eta 35 urte artean). Gainera, Internet bidezko erosketak gero eta jarraitzaile gehiago ditu kolektibo horretan. Diagnostikoan, merkataritza hirigintzan eta udalerriaren hiri erakargarritasunean jarduteko beharra ere aipatzen da. Lorategien egoera, aire zabaleko espazio estalirik eza, edukiontzien kokapena eta horien kudeaketa hobetzeko puntuak dira.

Gaur egun Altsasun 163 establezimendu daude: 81 (%49,7) txikizkako merkataritza, 31 (%19) ostalaritza eta 51 (%31,3) zerbitzuak. 2018an gaur egun baino 24 merkataritza eta zerbitzu establezimendu gehiago zeuden Altsasun, %15,4ko jaitsiera eta tarte berean ostalaritzako zazpi establezimendu gutxiago daude, %18,4ko jaitsiera.

Lan ildoak

Helburu hori lortzeko planak zehazten duen lehen lan ildoa merkataritza espazioan esku hartzea da, eta, horretarako, hiru neurri proposatzen ditu.

Jendea erosketak egiten Altsasun. ARTXIBOA

DIAGNOSTIKOAK AGERIAN UTZI DU EROSKETAK HERRITIK KANPO EGITEKO OHITURA DAGOELA

Batetik, kaleko paisaia eta harmonia. Bestetik, ibilgailuak aparkatzeko aukera erraztu behar da. Egileak nabarmentzen dutenez, Altsasun nahikoa aparkamendu plaza daude, baina haien erabilera "ez da oso komertziala, eta kanpoko bisitari eta bezeroek arazoak dituzte ". Eta, azkenik, hutsik dauden merkataritzako lokal hutsen erabilera sustatu. Izan ere, Altsasun 240 lokal daude, haietatik 163k aktibitatea dute (%67,9), eta gainontzeko 77ak (%32,1) hutsik daude. Kalekoa horrela dago egoera: Burunda %80, Erkuden eta Gipuzkoa %60, Intxostian %47,1, Intxaurrondo %44,4, Gartzia Ximenezen %41,4, Zelai %33,3, San Joan %32,7 eta Zumalakarregi plazan %15,4.

Bigarren lan ildoa eskariaren sustapena egitea da, altsasuarrak herrian kontsumi dezaten, eta bisitariak erakartzeko. Horretarako, lau jarduera aurreikusi ditu planak. Lehenik, astebururako plan eskaintza egitea. Bigarrenik, haur parke gehiago jartzea eta gune estaliak sortzea. Hirugarrenik, merkataritza eta turismo seinaleztapena jartzea. Turismoari lotuta, laugarren jarduera ostalaritza sustatzea jasotzen du planak.

Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeko Planaren hirugarren lan ildoak tokiko eragileen arteko lankidetza eta elkarlana bulkatzea du helburu. Hori hala izateko merkataritza mahaia sortzea proposatzen du batetik. Bestetik, segidarik ez duten negozio edo enpresa jarduerei jarraipena emateko, haien eskualdatzea erraztuko lukeen transmisio zerbitzua bulkatzea ezinbesteko jotzen du. Eta, azkenik, tokiko elkarteekin koordinatutako jarduera agenda bat sustatzea, eta elkarlana.

Plana egiterako garaian Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Enpresa Garapeneko Departamentuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren finantzazioa izan du.

Eskola zaharren eraikinean ere LED argia jarri dute.

Eskola zaharren etorkizuna zehaztu dute

Parte hartze prozesua bukatuta, bizpahiru aste barru publiko eginen du udalak hartutako erabakia

ARBIZU

Eraikinean bertan egindako batzarrarekin despeditu zen larunbatean Arbizuko Udalak eskola zaharren inguruan erabakitzeko bulkatutako parte hartze prozesua. Batzarrera joan ziren guztiak talde txikitan banatu ziren, eta planoak eskutan, aurrera-atzera ibili ziren eraikinean, aukera eta erabilera posibleak aztertzen. Akaberan batzartutakoek aho batez hartu zuten erabakia. Espazioaren banaketa, antolaketaren eta funtzionamenduaz adostasuna lortu zuten. Hura dokumentu batean jasoko du Elhuyarrek, prozesua dinamizatzeko kontratatutako enpresak. Hura bizpahiru astetan publiko eginen da.

Arbizuko Udalak karrika Nagusiko argiteria publikoko bonbillak kendu eta LED argiak jarri ditu. Javier Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "horrek argindar kontsumoaren %66 jaistea ekarri du. Energia kontsumoa ahalik eta gehien jaistea da helburua, eta hori lortzeko bidean lehen pausoa eman dugu". Lan horietara 90.000 euro (BEZ barne) bideratu ditu udalak (65.000 euroko dirulaguntza). Herriko gainontzeko bonbillak LED argiekin ordezkatuko ditu udalak. Bi fasetan eginen da, eta, beti ere, dirulaguntzen arora eginen dira lanak.

Bestalde, udalak Kattuka haur eskolako patioa handitu, egokitu eta ixteko lanak egin zituen udan. Horretarako 21.168,35 euro bideratu zituen (13.759,43 euroko dirulaguntza). Gainera, Razkinek azaldu duenez, udal langileen lanpostuen deskribapena eta balorazioa egiteko 6.413 euro bideratu dituztela, "udaleko langile bakoitzaren lanak finkatu eta horren araberako soldatak zehazteko egin dugu".

Urdalurko urtegiak ezohiko ikuspegia eskaintzen du egun hauetan, urpean gelditu ziren bordak ere ikus daitezke.

Mantentze lanak Urdalurko uberkan

Pilatutako uraren bolumena jaitsi dute, urarekin kontaktuan dagoen erretenaren paretan programatutako mantentze lanak egiteko. Porlana injektatzen ari dira gaur egun. Lanek bizpahiru aste iraunen dute

ALTSASU

Urdalur urtegiak apenas du urik, eta ondoan zeuden etxolak ikusi daitezke. Ezohiko egoera, makina bat jende erakarri duena. Ebroko Ur Konfederazioak kudeatzen du eta jakinarazi dutenez, "programatutako ohiko mantentze eta kontserbaziorako lan batzuk egiteko uberkak bildutako ur bolumena jaitsi da. Oraingoan, presatik gorako paramentuan hormigoizko injekzioak eginen dira". Konfederaziotik argitu dutenez, "urtegiak dituen ur ekarpenak kontuan izanda, bildutako uraren bolumenaren jaitsiera orain egin da, bere onera bueltatzea errazteko".

Uberkako pasa ireki eta pilatutako ur bolumena jaisteko maniobra lastaileko lehendabiziko astean hasi zuten. "Baina euririk gabeko tarte bat izaten ari zenez, urtegiaren ur ekarpenak neurtzen ari ziren, probetan zeuden. Bolumen jaitsiera, berez, joan den astean egin zen". Eta uraren maila jaistearekin kisusgileak paretan lanean hasi dira, urarekin kontaktuan dagoen erreteneko paretan hormigoi injekzioak egiten. Paretan lanean bizpahiru aste emanen dituzte.

Behin lanak despedituta, atzera ere, azaroaren erdialdean uberka ura pilatzen hasiko da. "Urtegiak ur ekarpen onak ditu azaroan. Gainera, urtean hainbatetan betetzen da", azaldu dute lanen arduradunek. Konfederaziotik argitu dutenez, "ur bolumena jaisteko maniobraren berri eman zaio etengabe Sakanako Mankomunitateari", bera baita Ur Zerbitzuaren bidez Urdalurren pilatutako ibarreko makina bat etxetaraino eramaten duena.

Ez dira aurten konfederazioak urtegian egin dituen lan bakarrak. Erreten gainera joateko bidea konpontzeko lanak joan den urtean hasi zituen, eta aurten falta den zatia konpondu du. Sasiak garbitu eta bestelako egiteko jakin batzuk ere egin dituztela gaineratu du erakundeak.

"Normalean, zorte txarra izan duen jendea izan da"

LUIS ANGEL DIAZ MEDINA ATERPEAREN KUDEATZAILEA

Marino Ayerra etxegabeen aterpeko erabiltzaileen profila hori dela esan dute kudeatzaileek. Elena Etxeberria Lanz eta Luis Angel Diaz Medinaren ardurapean dago

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Nafarroan etxegabekoendako hiru aterpe daude: Iruñean, Tuteran eta Altsasun. Hirurak udalenak dira. 30 urtez Altsasuko aterpean kaputxinoen komentuko eraikin batean egon zen, harik eta 2020ko otsail akaberan bidezainena zen etxebizitza batera aldatu zen arte. Altsasuko Udalak zerbitzu horretara urtero, bataz beste, 30.000 euro bideratzen ditu, Nafarroako Gobernuak erdia estaltzeko dirulaguntza ematen du.

Nola egiten duzue harrera?

Etorrera ordenan. 20:30ean egiten da. Gu 20:00ak aldera etortzen gara, euritan ari badu, edo prestatzen hasteko. Eta gure kontu, harrera egiten diegu.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Etxebizitzarik ez duten pertsonendako zerbitzua da. Aterpea astegunetan 20:30ean zabaltzen da. Pertsonei harrera eskaintzen zaie, hau da: ostatua, afaria, dutxatzeko aukera, gosaria eta biderako ogitartekoa ematen diegu. 08:00etarako aterpetik kanpo egonen dira erabiltzaileak. Eta aterpea ixten da. Guk, gainera, jendearendako arropategi bat jarri dugu, arropa garbia izan dezaten, aldatzeko edo trukatzeko. Ez dugu arropa asko, denboraldikoa dugu; berotzeko, edo dena delakoa.

Zenbat erabiltzaile har ditzakezue?

Aterpeak zortzi pertsonarendako gaitasuna du, baina pandemiak eragindako osasun egoeragatik lau besterik ez ditugu hartzen; gelako bi pertsona, metro eta erdiko distantzia mantenduz. Nafarroako Gobernutik esan digutenez, momentuz, gauzek dauden moduan segituko dute. Berez, gelako pertsona bat egotea esan ziguten. Bi pertsona hemen, batzuetan zerbitzua oso motz gelditzen da. Aterpe barruan musukoa erabili beharra dago.

Zerbitzuaren erabiltzaileek tren txartela eskuratzeko aukera dute, ezta?

Garai batean tren txartelak guk, udalak eta udaltzainek ematen genituen. Abusatu zuten erabiltzaileak egon ziren, udaletxean, gurean eta udaltzainenean eskatzen zutenak. Batzuetan ez zuen bat egiten gaua aterpean pasa zutenen kopuruak eta emandako tren txartelek. Eta baliabideak bukatzen ziren. Horregatik, udalak erabaki zuen udaltzainek bakarrik emanen zituztela trenerako txartelak. Iruñea, Gasteiz eta, oker ez banago, Beasainerako txartelak ematen dira gaur egun.

Noiz egin zenuten aterpe aldaketa?

Joan den urteko otsail akaberan aldatu ginen hona, pandemia ate joka zegoela.

"ATERPE BERRIA ASKOZ HANDIAGOA ETA EROSOAGOA DA ERABILTZAILEENDAKO ETA GURETAKO"

"EKONOMIAGATIK ASKO DIRA. ZORTE EDO BOLADA TXARRA IZAN BADU, ONDOREN LANIK EZ BADU..."

Zein alde dago lehengo eta oraingo aterpeen artean?

Aldaketa izugarria da. Askoz hobea da erabiltzaileendako eta guretako. Lehenik, espazioa. Udalari eta gobernuari jakinarazi genion arazoak genituela. Gurpildun aulkian dabilen jendea etortzen da eta lehengo aterpean sartzea ia ezinezkoa zen. Ateak kentzen eta bestelakoak egiten ibili behar izaten genuen. Egungo aterpea askoz handiagoa eta erosoagoa da. Heldu diren pertsona kopuruarendako oso ongi dago. Bestetik, berogailua hobeki dago, sartzen zarenetik nabari da. Hobe isolatuta dago. Hemen bi dutxa ditugu, lehen bakarra zegoen eta oso txikia zen. Sukaldeak tamaina egokia du. Espazioak asko irabazten du. Bestetik, garbiketa gela dugu. Bertan dago ura berotzekoa. Berriki sustoa eman zigun, ekaitz handiko egun batean, plazan tximista erori zenekoa. Makina erroreak ematen hasi zen, aseguru etxearen bidez konpontzea lortu genuen. Bestela, 6.000 euroko matxura litzateke.

Aterpea udalaren araudi baten arabera kudeatzen da. Egoitza aldaketarekin araudian aldaketarik egon da?

Aldaketa egiterakoan ez. Baina, duela gutxi, udalak aldaketa batzuk egin ditu. Baina, oinarrian, araudi bera da.

PROFILA

Aterpearen erabiltzaileek zein adin dute?

Gehienek 45 eta 60 urte pasa artean dituzte. Gehien etortzen direnak 50 urte pasata dituzte (%40 2020an). 40 eta 50 urteko adin tartea da bigarrena (%30). Hemendik pasatzen direnen %96 gizonezkoak dira. Bazter guztietatik heldu da jendea, baita atzerritarrak ere (%29,7 joan den urtean).

Zein arrazoik bihurtu ditu aterpeko erabiltzaile?

Hainbat istorio dira. Bakoitzaren istorioa jakitea zaila da. Baina, normalean, zorte txarra izan duen jendea izan da. Edo, azkenean, amore eman dutenak. Asko ekonomiagatik da. Zorte edo bolada txarra izan badu, ondoren lanik ez badu... Edo familia arazoak izan dituzte. Bizirauteko modua bilatzen dute. Aterpez aterpe joaten dira, eta zirkuitua sortzen da. Jende gehiena koadro horrekin heldu da: lan egin du,

Marino Ayerra etxerik gabekoen aterpetxearen mustutzea

Zinez ez zen inaugurazio betea, duela hiru urte inguru hasi baitziren zerbitzua ematen eraikin honetan. Kontua da orain dela bi urte pasatxo Marinoren alaba Teresarekin hitzartu zuela Altsasuko udalak aitortza ekitaldi bat egitea. Geroztik birusaldia iritsi, Teresa Ayerra hil, eta azkenik mustutzea egin ahal izan da, Marinoren suhi Enriqueren, biloba Pabloren eta beronen emazte Carolinaren presentziarekin.

Hitza hartu zuten besteak beste, Altsasuko alkate Javier Ollok, Nafarroako Gobernuko Lehen Arretako eta Gizarte Inklusioko zuzendari Maria Dolores Gutierrezek, parlamentuko buru Unai Uhaldek, eta Jokin Zelaia eta Javi Paz zinegotziek. Guztien artean aterpetxearen ibilbidea gogoratu zuten, eta babesgabe eta behardunei eskaintzen dieten zerbitzua nabarmendu zuten.

Teresa Ayerraren alargun senideak eta altsasuar lagunekin.

Hitzak hitz, solasik hunkigarriena Teresaren alargun Enrique Gonzalezek egin zuen, bai Marinoren bai Teresaren gogo bizia eta konpromisoa azpimarratu zituelarik. Ondoren aurreskua eskaini zioten Marinoren familiari eta erakina erakutsi zieten bertaratutakoei. Auzate batekin despeditu zen ekitaldia.

Marino Ayerra etxegabeentzako aterpearen egongela, logela, sukaldea eta sarrera.

eta jubilatzeko data iristea itxaroten ari da, laguntza jaso eta bizi ahal izateko.

Geroz, aterpeak bizirauteko modua ematen du.

Bai. Askok aterpez aterpe eramaten dituen zirkuitu moduko bat egiten dute. Badakite zein aterpetara joan daitezkeen, norekin egon daitezkeen, zenbat denbora egon daitezkeen... Asko dakite. Nahiz eta, zoritxarrez, pandemiarekin askok utzi gaituzten.

Zer informazio ematen diezue?

Iruñeko aterpearekin harreman zuzena dugu. Hura oso handia da. Dugun informazioa ematen diegu: zenbat egun egon daitezkeen, non dagoen... Nafarroako Gobernuaren bidez, pandemia garaian, sarea osatu zen, elkarri nola lagundu jakiteko. Iruñeko eta beste toki batzuetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik hots egin ziguten, han zegoen jendearendako aterpean tokia zegoen jakiteko.

Urteko zenbat erabiltzaile dituzue?

Pandemia aurretik, 2019an, 284 pertsonaren 409 egonaldi izan ziren (454 2017an eta 420 2016an). Baina asko jaitsi da, 167 erabiltzaile eta 221 egonaldi.

PANDEMIA

Inor ezin zen mugitu. Non gelditu ziren etxegabeak?

Entzun dudan gutxiaren arabera, atzera ere, etxera, familiarengana bueltatu zen jende asko; seme-alabekin, edo ahal zutenarekin. Beharbada ez zuten bueltatu nahi, baina ez zuten beste aukerarik, toki batean finko, geldi egon behar zutelako. Beste batzuek lagunengana jo zuten, toki beroetara, Cadiz eta halakoak. Baina nola moldatu diren ere ez dakit; batzuk aterperen batean geldituko ziren... Bakarren batzuek kontatu digutenez, aterpe batzuk atzerritarrez lepo omen zeuden, arazo ugari zeudela, oso zaila zela eta nahiago zutela ateratzea. Pandemia garaian beste aterpe batzuetako jendea iritsi zitzaigun.

Pandemian zein edukiera izan duzue?

Lau pertsonakoa. Baina, bataz beste, bi pertsona izan ditugu.

Pandemiaren hasieran inor ezin zen kalean egon. Zer egin zenituzten, 24 orduko lan txandak?

Guk Altsasuko Udalarendako lan egiten dugu, eta hark pandemiaren hasieran aterpea ixteko agindu zigun. Udalari eta Nafarroako Gobernuari galdetu genien: kalean dagoen jendeak zer egin behar du? Gobernuak aterpea zabaltzea eskatu zuen. Eta egunero 24 orduz lanean egon ginen.

"PANDEMIAREKIN JENDE ASKO ETXERA BUELTATU DA, ETA BEHARBADA EZ ZUTEN NAHI"

"KRISIAK ETA PANDEMIAK ERABILTZAILE BERRIAK SORTUKO DITU"

Zenbat egon zinetan horrela?

Martxoan itxi zenetik, egunero 24 ordu. Ohiko zerbitzura garagarrilaren 3an bueltatu ginen.

24 ordu hemen, ez da etxean egotea.

Bik lan egitearen abantaila da batek 24 ordu egiten zituela eta, ondoren, besteak beste 24. Horrela, astero. Nik familia dut eta pixka bat zailagoa izan zen. Zure burua zaindu behar duzu, adi egon... etxera joan eta han familia nuen.

Eta zer moduzko erlazioa zenuten erabiltzaileekin 24 ordu horietan?

Ezin ziren kalean egon. Kanpoan espazio handia dugu, eta kanpoan egon zitezkeen. Baina foruzainak ateratzean sartzeko eskatzen zieten (polizia etxea aterpearen ondoan dago). Ez zen ezer gertatzen. Aire pixka bat hartzen zuten eta kitto. 24 ordu hemen barruan ziren. Zortea izan genuen, jende nahiko majoa etorri zelako. Guztiek bezala, arazoak izan genituen. Guardia Civilak eta Foruzaingoak aldi banatan esku hartu behar izan zuten. Itxita egoten ez dakien jendea ere etorri zelako. Pandemia garaian tabakoa erostera irten zitezkeen. Atera, baina alkoholikoa zen eta edateari eman zion. Haren berri eman zuten, Guardia Civila agertu zen. Jaso nahi zuten, ez zuen nahi. Azkenean, hots egin ziguten aterpean ote zegoen galdezka. Haren bila joan nintekeen galdetu zidaten. Hori ez da nire lana. Baina gizarte kezkagatik joan, harekin egon eta, lasai gelditzeko, mozkorraldia pasa eta joanen gara aterpera. Hara ezin dute edanda sartu. Azkenik, ez zuen etorri nahi izan. Uko egin zion. Ziegan bukatu zuen. Ez dakit zer gertatu zen, Iruñean bukatu zuen.

Izan genuen arrisku pixka bateko beste egoera buru osasuneko arazoak zituen pertsona batekin izan zen. Ezin zen geldi egon. Ezin zuen ezta lorik egin, handik hona egon beharra zuen. Aterpean zegoen jendea urduritu zuen. Abisuak eman eta gero esan nion han ezin zela egon, aterpea ez zela berarendako toki egokia. Hurrengo egunean joan beharko zuela. Ez zuen ulertzen. Atean genuen. Eztabaidan hasi, bulkaka hasi zen. Foruzainek ikusi zuten, etorri ziren. Pertsona hura beldurtu eta joan egin zen. Foruzainek harrapatu zuten. Ezagutzen zuten, bazekiten arazoak zituela. Ohikoan arazoak sortu ditzaketenak adikzioak edo alkoholismoa bezalako osasun arazoak dituztenak dira.

Itxiera tokatu zitzaienek bi hilabeteak hemen eman zituzten?

Zoritxarrez ezin izan zen horrela izan. Hilabeteak pasa zituen jendea egon zen, ahal zuen guztia. Baina gero joan egiten ziren. Bestetik, Iruñeko Gizarte Zerbitzuetatik hots egiten zuten plaza hutsak ote genituen galdezka. Jakinarazten genien iritsiera ordenaren arabera ematen genituela. Ez dakit zergatik, baina kontua da Iruñeko jendeak ez duela hona etorri nahi. Aldaketa handia da, hiritik herrira. Ez dira ohitzen, edo ez dute nahi. Uste dut handik bi pertsona etorri zirela. Gutxi egon ziren eta, atzera, buelta egin zuten.

Pandemia aurreko erabiltzaile kopurura bueltatuko da aterpea?

Aurreko hilabetean nahikoa ongi egon zen. Atzera ere, jendea pasatzen hasi zela ikusten zen. Ezin dut aurreikusi zer gertatuko den. Entzun diegu lehendik arazo fisikoak edo osasunekoak zituzten erabiltzaile batzuk dagoeneko gurekin ez daudela. Galdutako erabiltzaileak dira. Baina krisiak eta pandemiak erabiltzaile berriak sortuko ditu. Uste dut erabiltzaile gutxiago izanen direla, baina ezin dut zehazki jakin.

Eta eguraldiak eragiten du aterpearen erabileran?

Nahiko, bai. Hotz handiagoa egiten duenean, jende gehiago etortzen da. Itxita edo toki batean egotera ohituta ez dagoen jendeak udan, esaterako, basoan edo beste nonbait egon daiteke. Esan izan digute udan kalean egotea nahiago dutela. Bai, ziklo moduko bat dago, eta hotz handiagoa egiten duenean aterpeko babesa gehiago bilatzen da.

Esandakoa esanda, nolakoa da zuen lana?

Nahikoa atsegina da. Egitekoa asko gustatzen zaigu. Elena eta biok hemen egoteaz pozik gaude. Gainontzeko aterpeen modura arazo asko ditugu, baina pozik gaude. Jendea laguntzeko gaude eta, horrek, aurrera egiteko bultzada ematen digu.

Arabako Lautadako eta Sakanako EH Bildu elkarlanean

Bi eskualdeetako ordezkariak bildu dira "administrazio mugak gaindituko dituen elkarlan iraunkorra bultzatzeko"

SAKANA

EH Bilduko Arabako Lautadako eta Sakanako ordezkariak Etxarri Aranatzen bilera egin zuten larunbatean. Koalizioak azaldu duenez, "bi eskualdeen arteko elkarlana bultzatzeko" egin zen bilera, "izan ere, asko dira komunean dituzten erronkak, gabeziak, aukerak eta arriskuak". Mugikortasunaren arloan lau gai jorratu zituzten EH Bilduko kideek. Batetik, "kalitatezko garraio publikoa bermatzeko, lehentasunezkotzat" jo dute Miranda de Ebro eta Altsasu arteko tren soziala martxan jartzea. Baita Altsasu eta Iruñean artean ere. Bestetik, Europako Atlantikoko kostaldetik Norvegia eta Portugal lotuko dituen Eurovelo 1 bizikleta ibilbidea. Bi eskualdeetatik pasako da, baina oraindik ez dago loturarik. Donejakue bideari lotutako azpiegiturak hobetzea eta mugikortasun kooperatiboa bultzatzeko sortu berri den KudeaGO izeneko aplikazioaren aukerak ere aztertu zituzten bileran.

Koalizioaren bi eskualdeetako kideek elikadura burujabetzari erreparatu zioten, eta egoki jo zuten Lautadako Landa Garapen Elkartea, Sakanako Mankomunitatea eta Sakanako Garapen Agentzia elkarlanean aritzea. Besteak beste aztertu zuten Lautadako Elikagaien Transformaziorako zentroak dituen aukerak eta etorkizunean eskainiko dituen zerbitzuak. Han lekaleak eta beste ale batzuen garbiketa gunea martxan dago. Bestetik, hegaztiendako hiltegi modularra egiteko proiektua dute, eta errota lanetan zein irinaren eraldaketan ere lanean ari da. Sakanan, aldiz, Etxarri Aranazko zatitze gela martxan jarri da, hiltegi zerbitzuaren osagarri gisa.

Hondakinen kudeaketa ere EH Bildukoen bileran hizketa gai izan zen. Asparrenen organikoa tratatzeko 1.200 metro karratuko instalazioa eraikitzen ari dira eta Arbizun konpost planta martxan dago. Energia azpiegiturei dagokienez, Zaragoza eta Gasteiz lotuko omen dituen goi tentsioko lineari erreparatu zioten, bi eskualdeak zeharkatuko lituzkeelako. Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago eta bide hori eskutik egiteko asmoa du EH Bilduk.

DUELA 25 URTE...

Aralar zinemako azken funtzioa

Gaur egun Etxarri Aranazko kultur etxea dena, aurretik Aralar zinema zen. Eraldaketa lanak 1996ko udazkenean hasi behar ziren. Eta zinema zaharrak hartu zuen azken ikuskizuna Donostiako Txotxongilo taldeak Euskal Herriko azken lamiaz ondutako lana izan zen. Ziriketzen euskara taldeak antolatu zuen emanaldia, eta 250 pertsona baino gehiago elkartu ziren. Akaberan artistek Sagri Mauleonen koadro bat jaso zuten opari, Txotxongilok 25 urte bete baitzituen orduan.

Sakanako ikuspegia. ARTXIBOA

Udal finantzaketa eredu berria adostu dute

PSN, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerrak adostu dute. Foru administrazioak azaldu duenez, ‘eredu bidezkoa, solidarioa eta nahikoa udalerri eta kontzejuendako’. Sistema berriarekin udal txikiek %15 gehiago jasoko dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Gobernuaren atean eskale ilara bat. Urteetan horrela irudikatu dute beraien burua herrietako alkateek eta kontzejuetako presidenteek Iruñera diru eske joan direnean. Herrian edozer egiteko Nafarroako Gobernuaren oniritziaz aparte, haren dirulaguntza behar baitzuten, eta dute. Udalen eta kontzejuen ekonomiaren mendekotasunaren adierazle garbia. Baina Nafarroako Gobernua barrutik eta kanpotik babesten duten alderdi eta koalizioen adostutakoaren arabera, toki erakundeek finantzaketa eredu berria izanen dute heldu den urtetik aurrera.

Nafarroako aurrekontuetan udalerri eta kontzejuendako 271,7 milioi euro aurreikusi dira heldu den urterako (aurten baino 16,4 milioi gehiago). Horrekin toki erakundeek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak finantzatzeko aukera izanen dute. Gainera, kopuru hori urtero Kontsumo Prezioen Indizea gehi bi punturekin eguneratuko da, Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokiona izan ezik). Horrela, toki erakundeen finantzaketari egonkortasuna eman nahi diote. Finantzaketa eredu berriarekin herritar guztiek zerbitzu eta azpiegituretarako sarbide bera izatea bermatu nahi dute.

Eredu berria

Egungo finantzaketa ereduak urtetik urtera handitzen den lurralde desberdintasuna sustatzen duela uste dute akordioaren sinatzaileek. Horregatik, diru banaketa egiteko bederatzi aldagai ditu: udalerriko biztanleria, pobrezia arriskuan dagoen biztanleria, 65 urtetik gorako biztanleria eta zahartze maila, hiri azalera publikoa, udalerriko biztanle guneen sakabanatze indizea, lurralde ekarpena, Ekonomia Jardueren gaineko zerga, Ibilgailuen gaineko zerga eta herri lurren aprobetxamenduari lotutako diru sarrerak.

2.500 biztanletik beherako udalerrietan, biztanleriarekiko banaketa proportzionala handitu egiten da, tarteen araberako zenbateko finkoekin. Horrela, bermatzen da udal guztiek, txikiak izan arren, gutxieneko zenbateko bat izanen dutela erakunde guztien oinarrizko gastu komunei aurre egiteko, eta gastu horiek ez daudela biztanle kopuruaren menpe. Transferentzia Arrunten Funts Orokorrak 196,6 milioi euro izanen ditu 2022an.

Horrekin batera, 44,5 milioi euroko funtsa sortuko du gobernuak, toki erakundeek ematen dituzten zerbitzuen arabera banatuko dena. Horrela, banaketari begira, 0-3 urteko ikastetxeei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei eta liburutegiei dagozkien zerbitzuak hartuko dira kontuan. Funts horretan, bestalde, montepioen modulu bat sartu da, Kontuen Ganberak 2017ko txosten batean emandako gomendioak betez. Azkenik, Lurralde Kohesiorako Funtsa sortu da, 16,2 milioikoa, udalerri jakin batzuek Nafarroako lurralde garapen jasangarrian betetzen duten zeregina indartzeko, trakzio izaeragatik eta lurralde orekari egiten dioten ekarpenagatik. Nafarroako eta Europako Lurralde Estrategiaren 6 printzipioetan oinarrituta (irisgarritasuna, kontserbazioa, lehiakortasuna, gizarte kohesioa, polizentrismoa eta identitatea), funtsetik 30 herrik jasoko dute dirua, tartean Irurtzun eta Altsasu daude. Azkenik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak 450.000 euro jasoko ditu.

Urtea despeditu arte udalek jasoko duten diru kopuru zehatza ezin da jakin, baina Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera Altsasuko Udalak 285.000 euro gehiago jasoko lituzke heldu den urtean, 2,7 milioi euro guztira.

Bernoako galtzadako ibilbidea mustu dute

Guztira 64 km balizatu dira. Ibilbide nagusia bi etapetan banatzen da: Etxarri eta Urdiain artekoa basoan barna eta Urdiain eta Etxarri artekoa Urbasara igota. Gainera, ibilbideak 11 aldaera, 4 desbideratze eta herri bakoitzaren zirkulu ibilbidea ditu

ETXARRI / BAKAIKU / ITURMENDI / URDIAIN

Udaz geroztik erabilgarri dago GR 323 Bernoako galtzada ibilbidea ibilbide luzea. Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo udalek elkarlanean sustatu dute ibilbidea atzo mustu zuten. GR323 lau udalek 2019an hasitako elkarlanaren fruitua da. Sakanako Garapen Agentziako (SGA) turismo teknikari Paki Urbitarte Cabrerak gogorarazi zuenez, "galtzada Erdi Arokoa da eta mandazainek lehengaiak garraiatzeko erabiltzen zuten barruko aldetik kostaldera eta alderantziz. Mandazain haien figurarik gabe gaur (atzo) ez ginateke hemen egonen. Mandazainen urrezko aroa XVIII. mendea izan zen. Errepideen sorrerarekin, XIX. mendean, erabiltzez utzi zen". Ekitaldia bera mandazainei omenaldi bihurtu zen.

Urbitartek azaldu zuenez, "azken urtetan Sakanako zenbait udal, eragile eta herritarrek galtzada berreskuratzeko lan egin dute". De Amicitia erakundearekin batera 2015etik auzolandegietara atzerriko boluntarioak etorri direla gogorarazi zuen. Baita herritarrek auzolana egin zutela ere.

Teknikariak argitu zuenez, "ibilbidea sortuz, berreskuratutako galtzada zatietatik pasaz, gure ondarearen eta historiaren parte garrantzitsu hau ezagutzera eman dugu. Beti ere, gure natur ondarea zainduz". Horregatik, Urbitartek ibilbidea ezagutzeko gonbidapena egin zuen.

Etxarri Aranazko alkate Silvia Marañon Chascok aitortu zuen aurretik galtzadaren inguruan lan handia zegoela, eta ibilbidea osatuz balioa eman zaiola. Marañonek lau udalen arteko elkarlana nabarmendu zuen, baita kudeaketaren ardura hartu zuen Bakaikuko Udalaren egitekoa ere. Horietaz aparte herritarrak, SGA, Cederna-Garalur

Nicolas (mendi federazioa), Silvia (Etxarriko alkatea) eta Paki (SGA).

"GR 323REKIN GURE ONDAREAREN ETA HISTORIAREN PARTE GARRANTZITSU HAU EZAGUTARAZI DUGU"

lanean aritu direla azaldu zuen. Azken horren dirulaguntzak proiektua posible egin duela ere azaldu zuen. "Orain disfrutatzea eta mantentzea tokatzen zaigu".

Ibilbideaz

Proiektua egin duen Lur Geroa enpresako Igor Erbiti Saizarrek nabarmendu zuen egitasmoan parte hartu zuen jendea "oso inplikatuta" egon dela, "horregatik aldaketa batzuk egon dira, Esaterako, Hiru Haitzetarako edo San Adrian ermitetarako deribazioak". "Errazena eginda dago, orain zailena mantentzea eta jarraipena orain heldu da, eta jendea gogotsu ikusten dut". Erbitiren iritziz, "ibilbide oso berezia da, gure arbasoekin harremanetan jartzen gaitu, ibilbidea polita da, jendea oso inplikatuta dago, historia gertaera bat dago. Gero eta galtzada zati gehiago berreskuratuko dira eta proiektu bizia izanen da. Hazi eginen da".

Nafarroako Mendi Federazioko ibilbide batzordeko Nicolas Jara Andiak ibilbidearen homologazioan lan egin zuen. "Denetarik du, mendia, basoa, tarteka agertzen den galtzada. Oso polita da". Ibilbidea baino, bide sare gisa definitu zuen, eta hartan ibiltzeko modu asko daudela azaldu zuen: perimetralki edo herri bakoitzean hasten eta bukatzen diren ibilbideak.

Jarak homologatutako ibilbide batek eskaintzen dituen baldintzak nabarmendu zituen. Batetik, ibiltariendako segurtasuna, "egoki balizatuta daudelako, eta oinezkoak ez du ibilbideari buruzko dudarik". Bestetik, "dispertsioa saihestu eta jendea edozein tokitatik joatea eragozten du, ibiltariak bidea trazatutako tokietatik joatea laguntzen du. Gainera, trazadura eremu seguru eta erakargarriena da". Azkenik, "eskualdea ezagunagoa izateko balio du. Baita herriak eta haiek dituzten zerbitzuak dinamizatzeko balio du", azaldu zuen mendi federazioko arduradunak.

Biak Bat-en aisialdi inklusiboko eskaintza, bueltan

Txakurrekin aisialdi inklusiboa eskaintzen du Biak Bat elkarteak, *Kontatu nirekin* programa. Altsasuko haur eta gazteei zuzendurik dagoen aisialdi inklusibo programa da. Izena ematen dutenek, animalien laguntzaz, hainbat ekintza eginen dituzte. Behar bereziak dituztenek, halako beharrik ez dutenek edota baztertze arriskuan daudenek parte hartzeko aukera dute. Beti ere, 6 eta 12 urte artean baldin badituzte. Azaroaren 6an eta 27an izanen diren saioak txakurrak ezagutu eta haien zaintza, maneiu eta tratuan oinarrituko dira. Informazioa eta izen ematea: *https://biakbat.eus/eu/*.

Iturmendiko medikuaren etxeak teilatu berria du

Irailean aldamioz jantzita egon da Iturmendiko medikuaren etxea zena, kontsultategia hartzen duen eraikina. Izan ere, kisusgileek teilatua berritzeko lanak egin zituzten. Iturmendiko Udalak lan horiek egiteko 27.000 euro baliatu zituen, guztiak ere, dirulaguntza bidez jasoak. Behin aldamioak jarrita eta langileak etxean aurrera atzera zeudela, fatxadak isolatzeko baliatu zuen Iturmendiko Udalak.

Lizarraga

Lizerratarrak San Klemente festetan pentsatzen hasi dira. Hilaren 9an egindako batzarrean festak "normal" egitearen alde egin zuten, azaroaren 19tik 21era.

Saray elkarteak elkartasun azoka jarri zuen irailaren 25ean Olatzagutian eta han izan zen Mari Jose Oraa Ezker (erdian).

"Gure elkartean emozioak beti pil-pilean daude"

MARI JOSE ORAA EZKER SARAY ELKARTEKO PRESIDENTEA

Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna izan zen hilaren 19an, gaitza eta haren ondorioak ikusgarri egiteko eguna. Saray elkartea gaitzari aurre egin nahian ari da

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Bularreko minbizia pasa duten hainbat burundar Olatzagutiko Sarasate plazan elkartuko dira gaur, 20:00etan, pintxo potean aritzeko. Elkartasun azoka ere izanen da. Bularreko minbiziaren Nafarroako elkartea da Saray. Haren egitekoak zein diren, eta Nafarroan bularreko minbiziaren inguruan egiten den lanketa azaldu ditu elkarteko buruak.

Ditugun zelula batzuek kapritxoak omen dituzte, ezta?

Hori da. Oso kapritxosoak, eta bat-batean esnatzen dira eta zure bizitza hankaz gora jartzen dute.

Eta zein da ondorioa?

Egun batetik bestera diagnosi txar bat jasotzen da. Zeren minbizi diagnosia ez da ona. Itxaropentsuak izan behar dugu. Baina, egia esan, jasotzen dugunok, lehenengoa da amildegia, beldurra eta ziurgabetasuna; ez dakizu zer gertatuko den zure bizitzarekin hortik aurrera. Kontrola galtzen duzu.

Kapritxodun zelula horiek lotan mantentzeko modurik badago?

Ikerketek esaten dute bizitza estiloa, ez erretzea, elikadura zaintzea eta dena, oso beharrezkoa dela horrelakoak ekiditeko. Baina, kasu batzuetan, nik 45 urte bete gabe nituela izan nuen. Batzuetan ere agertzen da. Egia esan, intzidentzia handia dago, miaketa kanpainak daudelako, asko begiratu eta diagnosi asko egiten da. Herrietara etortzen den autobus beldurgarri horri esker bizitza asko salbatzen dira. Horrela ikusi behar dugu. Horrelako azterketetarako prest egon behar dugu. Bizi iraupena luzatu da, eta gaitzak hor daude, beren lekua bilatzen.

Eragina, nolakoa da Nafarroan?

Aurten kopuruak mantendu egin dira. Urtero 410 edo 420 pertsonari diagnostikatzen diote Nafarroan. Esaten dut pertsonak zeren mundu guztiak pentsatzen du emakumeak izan behar dutela, baina gizonezkoak ere izan daitezke. Intzidentzia txikiagoa da, baina badago; bularra dutelako.

Aipatu diagnosi azkarrek eta medikuntza berrikuntzek zer eragin izan dute?

Sarayk aurten 25. urteurrena bete du. Beti esaten dut: 1996an, elkartea sortu zenean, diagnosia jaso zuenak ziur askoz ere okerrago pasa zuela, eta biziraupena ere askoz motzagoa izanen zela. Guretako bidea ikerlana da. Sentsibilizazioa eta beste atal batzuk bai, baina ikerlanean buru belarri eta gogor ari gara. Momentu honetan sendatzen diren kasuak ia-ia %90 dira. Baina %20 gelditzen da berriro izateko aukerekin, beste mota batekoa edo metastasia. Ikerlanen eta elkarteen kezka metastasikoak diren emakumeengan dago. Itxaropen handiarekin bizi izan dugu, arrosarekin gaude identifikatuta, baina, egia esan, gaitz serioa da, eta horrela tratatu behar da. Oraindik batzuek bizi behar dute tratamenduei adi, ateratzen diren ondorioak hobetzeko... Ez da tontakeria. Baina, beldurtu gabe! Aurrera egin behar da, errespetuz.

Zer eskaintzen du Saray elkarteak?

Iruñeko Ermitagaina kaleko 11. zenbakian dago. Atea irekita dago. Emakumeei, edo pertsona

kaltetuei, kasu egiten zaien leku bat da. Baina inguruak ere sufritzen du. Jakinez gero zure amak, alabak, izebak duela, zugan eragina du. Ingurune guztia tratatua edo kontutan izan behar da; nolako egoera bizi duen. Gaixooi beti gustatu zaigu modu pertsonalizatuan laguntza jasotzea. Sarayn hori egin dugu. Zorionez, medikuntza orain, kasu askotan, gutxienez ikerlanetan horretan dago. Arretaz aparte, jarduera pila eskaintzen dugu: yoga, reiki, soinketa, errehabilitazioa... Gaixoendako eta dagoeneko ez daudenendako zenbait zerbitzu dira. Bazkide direnendako, eta kanpokoendako. Sentsibilizazio kanpainak ere egiten ditugu, hilaren 19aren kontura, esaterako. Kalera ateratzeko eta, beldurrik gabe esateko hor dagoela. Gogoratzen dut garai batean minbizia hitza ere ezin zenuen esan. Hori landu eta normaldu behar da.

Hirugarren hanka ikerlana da. Lehen lasterketak egiten genituen. Azkenekoan 15.000 dortsal saldu genituen. Baina COVID-19 dela eta ezin da, eta aurten ginkana eginen dugu, 7.500 parte hartzailerekin. Larunbatean eta igandean Iruñean izanen da. 5 km-ko ibilbidean metro eta erdiko altuerako 25 lazo arrosa opatu beharko dituzte parte hartzaileek. Hortik ateratzen den diru guztia ikerketara bideratuko da. Orain Navarrabiomeden bi ikerketa finantzatzen ari gara. Batetik, biopsia likidoa bularreko minbizi metastasikoan. Biopsiak egiteko teknikak pila hobetzen ari dira. Odol analisien bitartez egitea litzateke helburua, ez zati bat kenduz. Agresiboa da. Metastasia baduzu, zaila da berriro beste biopsia egitea. Gauza zaila da eta biopsia likidoa itxaropena piztu duen teknika bat da. Eta besteak bularreko minbiziaren garuneko eta biriketako metastasia ikertzen ditu. Metastasia izatean ohikoa delako birikietan edo buruan izatea.

Elkartean profesionalak dituzue?

Jakina. Nik neuk minbizia izan nuenean ez nuen Sarayra joan nahi. Psikologoa ere ez dut behar, esaten nuen. Lur jota nago: bat-batean ezin naiz lanera joan, kimioterapiatik pasa behar dut, radioterapia... Beldurtzen zara. Esaten duzu: jasanen dut, eramanen dut... Emakumezkoak horrelakoak gara: denarekin aurrera egin nahi dugu. Ni, kasualitatez, lagun baten bidez, gauza bat galdetzera joan nintzen. Kimioterapiaren ondoren, nahiz eta burusoila izan, nik hondartzara joan nahi nuen, bainatu eta itsasoa nire larruan sentitu. Eta orduan esan zidaten: psikologo bat dago. Nik: Nola? Joan nintzen, egon nintzen. Eta, egia esan, pila ikasi nuen. Azken finean, zure bizitzan egiten duzun eten bat da. Kasu askotan ezin duzu bizitza normala egin. Beraz, ongi dago aprobetxatzea eta baliatzea zure barrura begiratzeko. Ez da elkartera joatea eta edonori zure bizitza kontatzea. Profesional onak ditugu, kristoren ibilbidearekin. Gero jardueretan izena eman nahi baduzu, bakoitzak erabakitzen du. Edo elkartetik momentu txar horretan pasa eta, ondoren, ezer ez.

Elkartearen eta Osasunbidearen arteko erlaziorik badago?

Bai. Gure ikerlan horiekin lotuta dugun zerbait da. Navarrabiomedekin ere elkarlanean ari gara ikerlan horietan. Baina ez da hori bakarrik. Gure elkartearekin lehenengo kontaktua Bihotzeko burukoak programaren bidez sortzen da. Ez dira burukoak, besapean jartzekoak dira. Bihotz itxurako kuxinak dira, oihalez eginak. Pisu eta forma berezia dute. Dena oso mimatuta dago. Gure boluntarioek ekoizten eta biltzen dute, eta ospitaleetara eramaten dute. Pertsona bati ebakuntza egiten diotenean jasotzen du, inguru hori babesteko da.

Masektomia (bularra kendu) ez badizute egiten, kontserbazio kirurgia egin behar badute, hau da, titia ez bada erabat moztu behar, zati bat bakarrik kendu behar bada, bularretako on bat eraman behar duzu. Guk bularretako horiek oparitzen dizkiegu. Akordio bat dugu. Hasieratik dagoen beste programa bat da, zirujau batek proposatutakoa.

Nahiko koordinatzen gara. Lastailaren 19a zela eta, Iruñeko Gaztelu plazan egon ginen, eta onkologia zerbitzua saritu genuen. Aitortza, gurekin parte hartzen dutelako. Guk gure kezkak transmititzen dizkiegu. Eta itxaron zerrenda edo zerbait badago, aldarrikatzen dugu.

Autobusa herriz herri dabil berriro?

Bai. Nafarroan berehala jarri zuten martxan. Guk saritu izan dugu miaketa lan hori. Esaterako, niri atzeman zidatenean 45 urte betetzera nindoan, azarokoa naiz. Baina 45 urte bete aurretik egin zidaten, martxoan lehenengo mamografia. Zorte txarra izan nuen, loteria ez, baina hau tokatu zitzaidan, zoritxarrez. Lehenengoan, pun! Diagnostikatuta. Garai hartan uste dut Gipuzkoan-eta beranduago egiten zela. Horrek nahiko ongi funtzionatzen duela esan nahi dut. Prebentzio programa baten parte da, eta oso garrantzitsua da. Beraz, nahiz eta autobusari beldurra izan, nahiz eta desatsegina izan titia zapaltzea, kristoren mina egiten duelako, joan behar da. Ez da utzi behar, zeren, agian, zure bizitza hor dago.

Saray kalera bueltatu da. Pandemia eta gero horren premia zuen?

Bai. Egia esan, ez gara gelditu. Pandemian telelanean aritu gara, gure artean bilerak egiten. Eskulan taldea denetarako prestatu da, haiek sortzen dutenarekin merchandisinga egiten dugu. Ateratzeko kristoren gogoa genuen. 2020ko lastailean ez ateratzea tristea izan zen. Pentsa lasterketan 15.000 dortsal salduta, eta zenbat jende gehiago atera zen kalera. Gure marea arrosa berriro martxan ikustea oso garrantzitsua da.

Pandemiaren eragina gaitz bikoitza da: koronabirusaz kutsatzeari beldurra eta duzun diagnosi txarra, oso gogorra da. Beraz, bai, bukatzeko gogoa dugu. Gure elkartea oso irekia da, gure elkartean emozioak beti pil-pilean daude. Oso arraroa da itxita egotea, ezin besarkatzeko muga hori gainditu.

Sakana ez da irla bat. Diagnostikatuak elkartzen dira? Sarayren taldea dago ibarrean?

Elkarteari lotuta gaude, ni nagoelako, eta beste batzuk joan eta egon direlako elkartean. 2007an gaixorik egon ginenak kalean elkartu ginen. Olatzagutian harrigarria izan zen, uda batean lauzpabost geunden aldi berean, edo bata bukatu eta bestea hasi. Erabaki genuen kafea hartzera gelditzea. Bat-batekoa izan zen. Elkartu ginen eta jakin genuen lastailaren 19ko nazioarteko eguna zegoela eta afaltzeko gelditu ginen. Taldea handitu eta Altsasuko eta Ziordiko batzuk etorri ziren. Geroztik urtero afaltzeko gelditzen gara. Pandemiarekin ez genuen egin eta aurten, gaur, 20:00etan, Olatzagutian pintxo potea eginen dugu. Olatzagutiko Udalak kultur etxea arrosa kolorez argiztatuko du. Eskertzen dugu. Han gelditu gara. Guztiak ongi etorriak izanen dira, minbizia dutenak eta ez dutenak. Gainera, Sarayko lagun bat etorriko da eta merchandising mahaia jarriko dugu. Eltzeitsua ere jarriko dugu, nahi duenak lazoa hartu eta diru pixka bat bota nahi badu, guk hori guztia ikerketarako eta programak aurrera ateratzeko erabiliko dugu.

Aurrera begira, Sarayk zein erronka ditu?

Oso lotuta gaude metastasia dutenekin. Talde bat sortu dute estatuan. Bizkaian oso indartsu hasi ziren. Gauzak mugitzen hasi dira. Iruñerriko akueduktua argitu zuten. Haiek esaten dute aldarrikapenak joan behar dutela lastailaren 19tik harago. Oraindik batzuek arazo serioak baitituzte. Jarraitu behar dela horren kontra borrokatzen, hobetzeko, bukatzeko ahal bada. Eta, jakina, mantentzea gurea misioa, funtzioa dena. Eta zerbitzu ona ematea.

"HERRIETARA ETORTZEN DEN AUTOBUSARI ESKER BIZITZA ASKO SALBATZEN DIRA"

"SENDATZEN DIREN KASUAK IA-IA %90 DIRA, BAINA %20 BERRIRO IZATEKO AUKERA DU"

"METASTASIKOAK DIREN EMAKUMEENGAN DAGO IKERLARIEN ETA ELKARTEEN KEZKA"

"PANDEMIAREN ERAGINA BIKOITZA DA: KUTSATZEKO BELDURRA ETA DIAGNOSI TXARRA"

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 29

ALTSASU **Gazte agenda: Sexgunea.**
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU **Gazte agenda: Gazteendako escape room.** Sakanako Gizarte Zerbitzuek antolatuta.
18:00etan, 19:30ean eta 21:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ **Zuhaitz Gurrutxagaren *Fubolistok* bakarrizketa emanaldia.**
19:00etan, kultur etxean.

OLAZTI **Koskobiloren inguruko hitzaldia: azkeneko aurkikuntza arkeologikoak. Hizlariak: Dani Ruiz Gonzalez aurrehistorialari eta arkeologoa eta Asier Gomez Olivenza paleontologoa.**
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU **Azken ostirala. *Preso eta iheslariak etxera* elkarretaratzea.**
19:30ean, udaletxearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ **Azken ostirala. *Preso eta iheslariak etxera* elkarretaratzea.**
20:00etan, plazan.

OLAZTI **Saray elkartearen elkartasun azoka.**
20:00etan, Sarasate plazan.

LARUNBATA 30

ALTSASU **Auzolana: Dantzaleku eta Baso itxiaren garbiketa.** Auzolanean Altsasu eraikiz elkarteak antolatuta.
10:00etatik aurrera, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ ***Autopista elektrikorik ez.* Batzar irekia.**
11:30ean, kultur etxean.

ALTSASU ***Azken erasoen aurrean autodefensa feminista!* elkarretaratzea.**
12:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN **Gau beltza. Kalabaza maskara tailerra Tramakuluren eskutik.**
17:00etan, Barazkigunean.

ALTSASU **Gazte agenda: Gau beldurgarria.**
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU ***Greenpiss. Un desmadre eco-ilógico* Yllanaren antzezlana.** Sarrerak agortuta.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 31

ALTSASU **Aralarko txokoak: Guardetxe – Putxerri ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.**
08:00etan, egoitzan.

HIRIBERRI **Mintzakiderekin Arakilgo altxorrak ezagutzen: Hiriberri eta Egiarreta, Itsasperriko baseliza eta Jose Cruz Arbillaren fosil bilduma.**
09:30ean, plazan.

ALTSASU **Naturanitzean gozatzen. Naturaren hizkuntza ikasi eta ezagutu.**
10:00etatik 12:00etara, San Pedron.

ALTSASU ***Haize Klasikoak* Haize Berriak bandaren kontzertua.**
12:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU **X. Arte Azoka.**
Azaroaren 4ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara eta igandetan 16:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.

IRURTZUN **Gau beltza. Ibilaldi Beltza. Orritz-Iskidi, Tramankulu, Ion Barbarin, Yurena Perez eta Alazne Perez de Muniainekin.**
17:30ean, Plazaolako zubitik.

LAKUNTZA **Cor Vivace abesbatzaren kontzertua.**
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 1

ALTSASU **Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU **Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Lehenengo finalaurrekoa.**
17:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ **Nazioarteko abesbatza zikloa: Norvegiako Stammer Ganbera Abesbatza.**
19:00etan, elizan.

ASTEARTEA 2

ALTSASU **EH Bilduren herri batzarra.**
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ASTEAZKENA 3

ALTSASU **Kafe konpondu.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***Madres paralelas* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Ostirala 29: 19:00
Igandea 31: 19:30

***El buen patrón* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 4: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

***Damas de hierro* zineforum filmaren emanaldia**
Igandea 31: 19:30

***Preparativos para estar juntos un periodo de tiempo desconocido* zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 4: 19:00

Izen ematea: 630900336 edo *sakana@cederna.es.*
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

OSTEGUNA 4

ALTSASU ***Portaera aldaketen eta alzheimerraren eta bestelako dementzien aurrean jarduteko jarraibideak* hitzaldia.**
16:30ean, Josefina Arregi klinikan.

HIRIBERRI **Bizi Arakil: Parte hartze saio irekia.**
18:00etatik 20:00etara, herriko etxean.

Bazkidezoz keta

IRAILEKO SARIAK

1. SARIA
Juantxo Gaya Andueza (Lakuntza)

2. eta 3. SARIAK
Arantza Haranburu Karrera (Ihabar)
Elena Garisoain Ibañez (Altsasu)
Alberto Mtnez. de Lagran Rodriguez (Altsasu)

lacturale gaztezulo guaixe fundazioa

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Tabernarako zerbitzaria behar da: Asteburuetan eta parranda egunetan lan egiteko. Euskalduna eta aritua. Deitu 948 461 228.

LEHIAKETA

Kameratoia ikus-entzunezko rallya: 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua, gehienez 6 kideko taldeetan parte har daiteke. Erronka? 36 ordutan antolakuntzak egunean bertan emandako gai eta baldintzen araberako laburmetraia sortzea. Sariak: 800 euro irabazlearentzat, 400 euro bigarren sailkatuarentzat. Izena emateko epea azaroaren 7an amaitzen da.

OHARRA

Nafarroa Oinez lagundu: Lizarrara joan ezin izan zutenek eta Lizarra Ikastola lagundu nahi dutenek horretarako aukera dute "Nafarroa Oinez Fundazioa / 03259" Bizum kontuaren bidez edo *www.nafarroaoinez.eus* web orriaren bidez.

Lakuntzako Udalak kontribuzioa ordaintzeko: Aurtengo bigarren seihilabeteko kontribuzio zerga ordaindu nahi dutenendako eta helbideratuta ez dutenendako aukera izanen da Lakuntzako banketxeetan udalak dituen kontuetan azaroaren 15era arte. Helbideratuta dutenei azaroan kobratuko zaie kontutik.

Irurtzunen euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia: 2020ko irailetik 2021eko abuztura egindako euskarazko edozein ikastaro motetara bideratua. 16 urtetik gora izatea eta Irurtzunen erroldatuak egotea derrigorrezkoa da. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira 2021eko urriaren 31a arte. Epea luzaezina izanen da. Informazio gehiago udaletxean bertan galdetuz.

Etxarri Aranazko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira diruz lagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo *www.etxarriaranatz.eus* web orrian ikus daitezke.

Etxarri Arnazko Udalaren oharra: 2021eko 1.seihilabeteko ura ordaintzeko borondatezko epea aurtengo azaroaren 4an bukatuko da. Ordainketak helbideratua dituztenei, azaroaren 4an kargatuko zaie beren kontuetan eta gainerakoek herriko banketxe batean ordaindu beharko dute. Helbideraketa berriak edo aldaketak eskatzeko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

Etxarri Aranazko Udalak 0-2 urteko haurrek Kattukan eskolaratzeko dirulaguntza: Eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 8an amaituko da.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren fotogramak ekimena: Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu, digitalizatu eta zaintzeko asmoarekin, Filmotekak herritarrei deia egiten die etxean izan dezakeen materiala dokumentatu nahi duelako. Material orok balioa duela jakinarazi nahi dute (kamerak, proiektoreak, aldizkariak, gidoiak, bobinak, VHS, Betacam, DVDak, filmak...) Bi aukera daude materiala uzteko; Gordailua (Epe baterako uzten da, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio gordailugileari, eta nahi duenean berreskura dezake bere materiala artxibotik) eta Dohaintza (Materiala ezin da artxibotik jaso, Artxiboari ematen zaizkio eskubideak, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio dohaintza emaileari). Galdetu zure herriko liburutegian, han emango dizute informazio gehiago, beraiek egingo dute bitartekari lana eta. Edo deitu Nafarroako Filmotekako Artxibora 848 424 750 (*filmoteca.archivo@navarra.es*) edo Liburutegi Zerbitzra 848 427 784 (*cflamarg@navarra.es*).

Erabilgarri ez diren erradiografien bilketa kanpaina farmazietan: Nafarroako Farmazilarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmazilariak" GKErakundeak bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrak direlako eta bestalde, duten zilarraren salmentarekin Gobernuz Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta bestelakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA

Justi Ezkutari Mendiola

Zure alaitasunak zerua argitzen du

Pellonekoa

Etxarri Aranatz, 2021eko urriaren 19a

OROIGARRIA

Txentxo Herrero

I.urteurrena

Beti izango zara gure bihotzetan

Zure familia

JAIOTZAK

- **Aiuri Ulaiar Gallo,** urriaren 16an Urdiainen
- **Amets Galartza Otermin,** urriaren 20an Altsasun
- **Irati Izagirre Ladrón,** urriaren 24an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
► Bazkideek %10eko deskontua dute.
► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza
"Betidanik"
948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

Ion Cerviño Pueyo. XOTA

Ion Cerviño irurtzundarra Espainiako selekziora

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotako gazteak "ilusio handiz" hartu du selekzioko deialdia

Osasuna Magna Xota taldeko Ion Cerviño Pueyo jokalari gazteak beste behin Espainiako Areto Futbol Selekzioaren deia jaso du, oraingo honetan hemeretzi urtez azpiko selekzioarena. Selekzioak prestaketa kontzentrazioa egingo du igandetik ostegunera, eta bertan ariko da Ion Cerviño. Tartean lagunarteko partida bat jokatuko da. Irurtzundarrak ilusioz hartu du selekzioaren deia. "Hemeretzi urtez azpikoaren deialdiagatik oso kontentu nago. Hautatzaileari eskerrak eman nahi dizkiot, niganako duen konfiantzagatik, eta hemendik aurrera lan handia egin beharko dut deialdi hau azkena izan ez dadin" adierazi du Xotako atzelari gazteak.

Zaragozaren kontra

Imanol Arregi entrenatzailea mimoz prestatzen ari da Osasuna Magna Xotak bihar, larunbata, Futbol Emotion Zaragoza taldearen kontra jokatuko duen partida (18:00etan, LaLigaSportsTV). Talde berdea gauzak oso ongi egiten ari da eta taldea sendotzen ari da. Orain arte ez du galdu, eta puntuatzen jarraitu nahi du. Futbol Emotion Zaragoza jaitsiera postuetan dago, baina nafarrak ez dira fio eta partida zaila izanen da.

2019an Ezkurdiak Lau eta Erdiko Txapela irabazi zion Altunari, eta Laso hirugarren sailkatu zen. Hirurak finalista dira. ARTXIBOA

Ezkurdia eta Altuna, aurreratutako finala

PILOTA Final kutsua duen Lau eta Erdiko finalerdia jokatuko dute Joseba Ezkurdiak eta Jokin Altunak igandean Gasteizko Ogetan. Ezkurdia ligaxkako partida guztiak irabazita iritsi da hitzordura, Altuna bat huts eginda, eta goi mailako ikuskizuna espero da

Maider Betelu ARBIZU / ETXARRI A.

Ia konturatu gabe Lau eta Erdiko Pilota Txapelketako azken txanpan gaude. Berezia izaten ari da kaiolako txapelketa, pandemiaren ondotik murrizketarik gabe eta frontoiak beteta daudela jokatzen ari den lehen txapelketa izan delako, eta pilotariek euren onena eman dutelako. Eta zer esanik ez lau finalistek: Joseba Ezkurdia Galarragak eta Jokin Altuna Altunak, batetik, eta Peio Etxeberria Vittorinik eta Unai Laso Lizasok, bestetik. Sekulako maila eta ikuskizuna eman dute.

Enpresei begira, Aspek hiru pilotari sartu ditu finalerdietan, eta Baikok bat. Agerikoa da azkenaldian balantza beti Eibarko enpresaren aldera erori dela. Horren adibide, 2017ko maiatz bukaeratik jokatu diren maila nagusiko txapel guztiak, hamabi guztira, Asperen pilotariendako izan dira. Bilbon kontuak atera beharko dituzte.

Peio Etxeberriak eta Unai Lasok jokatuko dute lehenengo finalerdia, larunbatean ziurrenik leporaino beteko den Labrit pilotalekuan (17:15ean, ETB1). Asteazkenean aukeratu zuten materiala, ez zen inolako aitzakiarik egon, eta finalerdietarako "oso gogotsu, ilusio handiz" daudela aitortu zuten biek. Finalerdia oso irekia da, eta erritmo handikoa izango dela dio katedrak. Eta atzo, osteguna, banatu zuten materiala Joseba Ezkurdiak eta Jokin Altunak. Igandean jokatuko dute finalerdia, Gasteizko Ogetan, (16:30ean, ETB1) eta ikusmina handia da, finalerdiak final kutsua duelako, guztiz.

Bi espezialista handi

Azken lau urteetan Lau eta Erdiko txapeldunak izan dira Ezkurdia eta Altuna. Bina txapel jantzi ditu bakoitzak (2017an eta 2020an Altunak, eta 2018an eta 2019an Ezkurdiak). Kaiolan espezialista hutsak dira, eta igandean bi pilotari handien erakustaldia espero dute Ogetara hurbilduko diren pilota zaleek.

EZKURDIAK ETA ALTUNAK KAIOLAKO BINA TXAPELA DITUZTE, ESPEZIALISTA HUTSAK DIRA

Aurtengo txapelketan hasierako ligaxkako partida guztiak, hirurak irabazita iritsi da Ezkurdia finalerdira; berak aitortu zuenez, abuztutik kaiolako txapelketa prestatzen ibili da buru belarri, eta prestaketa sakona egin du: zazpi kilo galdu ditu, ez du txisparik galdu eta fin ibili da, erritmo ikusgarrian. Bestalde, bi partida irabazita eta partida bat galduta –Peio Etxeberriaren kontra, 18 eta 22–, iritsi da Altuna finalerdietara. Jokin Altunari ez zaio oso eroso ikusi, baina horrek ez du esan nahi sasoi betean ez dagoenik, astelehenean Bengoetxearen kontra egin zuen partida ikusgarriak argi uzten duenez. Beraz, finalerdia irekia da eta edozer gerta daiteke, bi txapeldun handiren arteko lehia izango delako.

Bakaikoa vs Dario, Promozioan

Joanes Bakaikoa etxarriarrak Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketan finalerdietara sailkatzea lortu du, astelehenean ligaxkako hirugarren jardunaldian Salaberriari 22 eta 18 irabazi eta gero. Lehen jardunaldian 22 eta 5 irabazi zion Alberdiri, eta bigarrenean 12 eta 22 galdu zuen Zabalaren kontra. Merezita iritsi da finalerdietara.

Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketako bi finalerdiak Logroñon jokatuko dira, astelehenean, Domu Santu egunean (17:00etan, ETB1). Bakaikoak Dario izango du aurkari, eta Zabalak Zubizarreta III.a.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Erriberri **2-1**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Lerinés	**19**
5	Lagun Artea	**11**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Lagun A. - P. Azagresa *(Zelai Berri)*

Lagun Artea Peña Azagresaren kontra

Erriberriren kontra irabazi eta gero, Peña Azagresa hartuko dute lakuntzarrek.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Oberena **1-3**

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	**21**
10	Altsasu	**0**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

18:15 Berriozar - Altsasu *(Berriozar)*

Altsasu vs Berriozar

Altsasu eta Berriozar punturik gabe daude, eta urrezkoak dira jokoan dauden hirurak.

FUTBOL PREFERENTEA

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK

San Andres – Etxarri Aranatz **1-1**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	**19**
10	Etxarri Aranatz	**9**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

12:00 Etxarri - Itaroa Huarte *(San Donato)*

Etxarrik Huarte Itaroa hartuko du

San Miguelekin partida ona egin eta gero, Huarte hirugarrena hartuko du Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Amaya **3-0**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Iruña B	**15**
4	Altsasu	**12**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:00 Iruña - Altsasu *(Taxoare)*

Altsasuk lidergoa du jokoan

Altsasuk eta Iruñak lidergoagatik borrokatuko dute igandean Taxoaren.

2021/2022ko Preferente mailako Etxarri Aranatz taldea. Goian, ezkerretik hasita lehena, Iosu Murgiondo entrenatzailea. UTZITAKOA

Etxarriren itzulera

FUTBOLA Aurreko denboraldian jokatu gabe egon ondoren, aurten preferente mailara itzuli da Etxarri Aranatz, gaztetuago eta gogotsu. Helburua taldea ontzea eta mailari eustea da. Liga hasiera txukuna egin du,eta larunbatean Itaroa Huarte hartuko du

Maider Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatz futbol taldean aldaketa asko egon dira azken bi urteetan. Pandemiagatik joan den urteko denboraldian parte ez hartzea erabaki zuten, baina aurten bueltan da talde etxarriarra, gogotsu. Urte eta erdi jokatu gabe egon eta gero, meritu handia.

Iaz ez jokatzeko hartutako erabakia ez zen samurra izan. "Une nahasiak izan ziren. Jokalari asko hasteko prest zeuden, baina beste zenbaitek beldurra zuten, lana zela eta beste. Ez genuen nahikoa jenderik,eta aurreko denboraldian parte ez hartzea erabaki genuen" azaldu Etxarriko entrenatzaile Iosu Murgiondo Mundiñanok.

Bueltarako gogoz

Aurreko denboraldian jokatu gabe egon ondoren, aurten itzuliko ote ziren zen sakandar askok egiten zuten galdera. Ez baita batere erraza. Baina Etxarri Aranatz itzuli da. "Bagenekien hamabost jokalarik taldean jarraituko zutela. Hasieran sei-zazpik esan zuten ez zutela segituko, baina pare batek jarraitzea erabaki zuen, behetik igo ziren beste gazte batzuekin batera. Hogei jokalarirekin liga hasi dezakezu, baina lesioak eta zigorrak direla, kopuru nahiko justua da. Beste futbol taldeetan jokatzen ibili ziren bizpahiru jokalarik itzultzea erabaki zuten, eta 24 jokalari bildu gara. Azken urteetan ez dugu horrenbesteko jenderik izan" dio Murgiondok.

"TALDEA GAZTETU DA. BERAZ, HOBETZEKO TARTEA DUGU ETA HORRETAN GAUDE"
IOSU MURGIONDO

Bueltarako irrikaz zeuden. "Geldialdiak egin duena da jendea futbolean hasteko gogotsuago egotea. Ekain aldera jokalarien eskaera zen entrenatzea, eta horretan hasi ginen. Ia bi urte izan dira jokatu gabe egon garenak, eta nola hasiko ote ginen zalantza genuen. Kosta egin zen, baina uste dut orain martxa hartzen ari garela" gaineratu du.

Iosu Murgiondo berak gidatzen du taldea. Entrenatzaile izan zen, gero utzi zuen, baina orain bueltatu da. "Iruñetik etortzen diren entrenatzaileek diru asko eskatzen dute eta gu klub txikia gara. Barnean arantza bat bezalakoa nuen, azken denboraldian ez ginelako ongi ibili, eta juntak nahi bazuen, segituko nuela esan zien. Baietz erantzun, eta aurrera" aipatu digu.

Preferente mailan hemezortzi talde ari dira lehian. Jokatutako zazpi jardunaldietatik, bi irabazi, hiru berdindu eta bi galdu ditu Etxarrik, hasiera txukuna. Hamargarrenak dira, bederatzi punturekin. "Lehen partida Berbinzanan jokatu genuen eta nahiz eta ongi jokatu 5 eta 1 galdu genuen. Bigarren partida berdindu egin genuen etxean, baina ongi ibili ginen. Eta hirugarren partida irabazi genuen Aiegin, 3 eta 4, Arenasen kontra. Taldeari oso ongi etorri zitzaion, bere buruan sinisten hasi baitzen. Laguntzaileak, Jose Guillormek, esan zidan ez zela gogoratzen partida bat irabaztea zer zen, eta egia da, azken denboraldian bolada txarra genuelako. Horregatik, irabaztearen sentsazioa oso berezia izan zen. Hurrengo partida ere irabazi genuen, Etxarriko ferietan" dio Murgiondok. Asteburuan husna berdindu zuten San Andresekin, Lizarran. "Taldeak ongi jokatu zuen, eta etxetik kanpo puntu bat ekartzea ez da txarra" gaineratu du.

Gaztea, hobetzeko tartea duena

Etxarri Aranatz talde gaztea da. "Taldea asko gaztetu da. Horrek esan nahi du hobetzeko tartea dugula, eta horretan saiatuko gara, taldea egiten" nabarmendu du Murgiondok. Preferente ligari dagokionez, "gutxi gorabehera urtero bezalakoa" izango dela uste du. "Badakizu zein talde egongo diren goian, talde onak dituztelako; beste batzuek nahiz eta goian ez egon liga lasaia izango dute; eta beste batzuk maila mantentzeko borrokan egongo gara" dio, irribarretsu. "Herrietan, zortea baduzu, tarteka belaunaldi majo bat tokatzen zaizu eta talde ona sortu dezakezu, bizpahiru urtez ongi ibiltzeko. Gu taldea ontzeko lanean gabiltza, eta plana ongi egiten badugu, uste dut hurrengo urteetan talde txukuna izango dugula eta ongi ibiliko garela, lasaiago, preferentean" dio.

Aldatu ez dena taldean duten giro ona da. "Denak ezagunak gara eta horrek aldagelako giroan asko laguntzen du" nabarmendu du. Etxarriarrak dira gehienak, baina badago Altsasu, Arruazu, Ihabar eta Irurtzungo jendea, gehienak haurren mailatik Etxarriko taldean trebatu direnak, "guretako, etxekoak".

"PLANA ONGI EGITEN BADUGU USTE DUT TALDE TXUKUNA IZANGO DUGULA"
IOSU MURGIONDO

Larunbatean, Itaroa Huarte

Bihar, larunbata, 12:00etan, hirugarren den Itaroa Huarte hartuko du Etxarrik, talde ona. Etxean jokatzeak beti laguntzen du. "Guk belar naturala dugu eta gainontzeko talde gehienek artifiziala. Ez daude ohituta, eta asko nabaritzen da. Oso garrantzitsua da etxean jokoan dauden puntuak ateratzea, beste zelaietara zoazenean hango puntuak ateratzea asko kostatzen delako" azaldu du Murgiondok.

Etxarri-Lagun Artea akordioa

Etxarrik haurren mailako bi talde ditu, kimuen mailako bi talde eta benjamin mailako talde bat. Jubenilen mailako talderik ez du, eta kadete mailako jokalariak baditu, baina ez taldea osatzeko adina. "Horregatik Lagun Artearekin harremanetan jarri ginen. Beraiek hamar jokalari inguru zituzten, guk beste horrenbeste. Erabaki genuen Lagun Artea izenarekin aterako genuela taldea, lakuntzarrek jubenilen taldea dutelako eta kadeteek bertara igotzeko aukera izateko. Nahi duguna da haurrek eta gazteek futbolera jokatzeko aukera izatea, eta hori horrela izaten saiatuko gara beti" azpimarratu du.

Etxarri Aranatz

- **Atezainak:** Euken Vandenhove eta Amaiur Arratibel.
- **Defentsak:** Alain Perkaz, Xabier Igoa, Andoni Agirre, Julen Iragi, Oihan Karasatorre, Adrian Jaca, Markel Erdozia, Aritz Aristorena eta Unai Satrustegi.
- **Erdilariak:** Iñaki Agirre, Aratz Mariñelarena, Mattin Altzelai, Jurgi Kintana, Iñigo Arratibel, Xabier Ormazabal, Javi Fernandez, Yerai Perez de Villarreal eta Mikel Arratibel.
- **Aurrelariak:** Xabat Goikoetxea, Alain Alberdi, Darling Quezada eta Rolando Sanchez.
- **Entrenatzailea:** Iosu Murgiondo. Laguntzailea: Jose Guillorme.

Etxarri Aranatz K.E. junta
Eduardo Elso presidentea, Iñaki Elvira diruzaina, Iña Arratibel idazkaria eta Jose Javier Urkia, Jose Guillorme, Xabier Errazkin eta Koldo Murguiondo bokalak.

Herri kirolarien itzulera plazara

Alvaro Zugarrondo, Mikel Lasarte irakaslea alboan duela, altxaldia egiten.

HERRI KIROLAK Pandemiaren ondoko lehendabiziko Sakanako Herri Kirol Eguna berezia izan zen. Giro ederra egon zen Irañetan eta herri kirolariak gogotsu aritu ziren, honen ondotik plaza gehiago iritsiko diren esperoan

Maider Betelu Ganboa IRAÑETA

Oso polita izan zen igandean Irañetan ospatutako Sakanako Herri Kirol Eguna. Polita, inoiz baino gehiago ospakizun kutsua izan zuelako, kirolarien plazarako buelta, hain zuzen ere. Izan ere, kirolari asko pandemia aurretik ez baitziren plazetan ibili. Eta hori da aizkolarien, harri jasotzaileen, trontzalarien eta herri kirolari guztien habitata: plaza. Horregatik, plazan egoteagatik bakarrik oso pozik zeuden herri kirolariak. Eta poztasun hori izan zen eguneko protagonista.

Plazara buelta

Sakanako Herri Kirol Eguneko erakustaldiak hasi baino lehen, egurrak prestatzen zebiltzan Sakanako Aizkora Eskolako Juanito eta Miguel Angel Erdozia Mauleon, eta baita herri kirol eta aizkora ekitaldi eta txapelketa guztietan antolatze eta prestaketa lanetan ibiltzen den Jesus Mari Arza Bergerandi ere. Egurrak begiratu, kokatu, aizkolariekin hitz egin, aspaldiko ezagunekin egon... ez zuten lan makala. Eta, haiei so, Sakanako Aizkora Eskolako neska-mutilak: Jon eta Ekai Erdozia Gonzalez de Pedroso, Aritz, Eñaut eta Urko Oiarbide Erdozia, Joan Goikoetxea Agirre, Amets Aristizabal Vicente, Unai Jaka Erdozia eta Iraide Vergara Mundiñano. Haiendako berotzeko eta entrenatzeko propio prestatutako enborretan jo eta ke zenbiltzan lanean.

Plaza erdialdean, aldiz, Sakanako Harri Jasotze eskolako Mikel Lasarte Artola monitorea eta bere ikasleetako bat, Alvaro Zugarrondo Orta, erakustaldian erabili beharreko harriak behar bezala prestatzen zebiltzan. Eta, albo batean, Andra Mari ikastolako herri kirol monitore edo arduradunak, Jexus Senar Aristorena eta haren seme Mikel Senar Bergera. Trontzan aritzeko bi bikote prestatu zituzten: Amaia Razkin Alvez eta Amets Allam Katarain eta Maia Jimenez Elizalde eta Maddi Beltza Beristain, eta trontzak errepasatzen ibili ziren. Guztien artean Arkaitz Jauregi Gorrotxategi, Juanjo Erdozia Ulaiar, Iban Resano Igoa eta Goizeder Beltza Igoa aizkolariak beroketa ariketak egiten zeuden, eta baita Juanito Erdozia ere. 78 urterekin, Sakanako Aizkora Eskolako irakaslea erakustaldia egiteko prest eta gogotsu baitzegoen, sasoi betean.

Aipatutako guztiek parte hartu zuten Mank-ek antolatutako Sakanako Herri Kirol Egunean. Talde argazkia atera zuten, eta gero hasi ziren erakustaldiak, bata bestearen atzetik. Alvaro Zugarrondo hasi zen, 113 kilokoari hamar altxaldi egiten. Ondoren Sakanako Aizkora Eskolako bi bikok erakustaldia egin zuten: Aritz eta Eñaut Oiarbide anaiak, batetik, eta Amets Aristizabal eta Joan Goikoetxea, bestetik. Haien atzetik trontza erakustaldia egin zuten Andra Mariko bi bikoteek.

Hiru belaunaldiak

Segidan Erdoziatarren txanda izan zen. Juanito Erdozia Mauleon, bere seme Juanjo Erdozia Ulaiar eta aurrekoaren seme Jon Erdozia Gonzalez de Pedroso elkarlanean aritu ziren, enborra botatzeko. "Hurrena kanakoa" izango da, zioen, irribarrez, beteranoak. Segidan Arkaitz Jauregik eta Juanjo Erdoziak, batetik, eta Iban Resanok eta Goizeder Beltzak, bestetik, zutik zegoen enborra erdibitu zuten. Haiei eskolako gainontzeko gaztetxoek hartu zieten lekua, Unai Jaka, Iraide Vergara, Urko Oiarbide eta Ekai Erdozia aizkolariek. Harri jasotzaileak eta trontzalariak berriro aritu ziren, aizkolari nagusiek ere lehia ederra izan zuten –Erdozia eta Jauregi gailendu zitzaizkien Resanori eta Beltzari–, eta jardunaldia despeditzeko Sakanako Harri Jasotze eskolako irakasle Mikel Lasartek, motozerra erakustaldia egin zuen: motozerrarekin kattagorri polita egin zuen.

Irañetako plazan giro ederra egon zen eta kontentu zeuden herri kirolariak eta baita Amaia Gerrikagoitia Mank-eko kirol teknikaria ere. "Pandemiaren ondotik egiten dugun lehen herri kirol erakustaldia da eta alde horretatik oso berezia izan da. Oso gogotsu daude guztiak, Sakanako eskoletan aizkoran eta harri jasotzean trebatzen ari diren neska-mutilak bereziki, eta baita irakasleak ere, beteranoak. Egun oso polita izan da" nabarmendu zuen teknikariak. Festa eguna borobiltzeko, Irañetako elkartean bazkaltzera bildu ziren guztiak, Irañetakoaren atzetik, beste plaza gehiago iritsiko direnaren zain.

PANDEMIAREN ONDOTIK EGITEN ZEN LEHEN SAKANAKO HERRI KIROL EGUNA OSO BEREZIA IZAN ZEN

"Txikitatik oso argi nuen aizkora eskolan hasi nahi nuela"

UDANE VERGARA MUNDIÑANO SAKANAKO AIZKORA ESKOLAN TREBATZEN DEN AIZKOLARIA

Zer moduz Irañetan?
Oso gustura. Hasieran urduri nengoen, duela asko ez bainuen aizkorarekin entrenatzen. Kosta egin zait, baina gero hobeki.
Pandemiatik hau zen lehendabiziko Sakanako Herri Kirol Eguna.
Bai, eta oso gustura. Mozketa zela, adarra zela… denetatik tokatu zait eta ahal duguna egin dugu.
Aizkora izugarri gustuko omen duzu txikitatik.
Bai. Bederatzi urte nituela Sakanako Aizkora Eskolan hasi nahi nuen, baina esan zidaten hamar urteak beteak izan behar nituela sartzeko. Hamar urte bete bezain pronto hasi nintzen.
Etxekoek zer esaten zizuten?
Oso zaila zela, arriskutsua. Aizkora bat arriskutsua da kontrolatzen ez baduzu, baina ikasten baduzu, ongi.
Zenbat urte daramatzazu eskolan?
Lau urte. Datorrena, 2022koa, bosgarren urtea izango da.
Zer moduzko irakasleak dira erdoziatarrak?
Oso irakasle onak eta oso jatorrak. Asko laguntzen didate.
Datorren ikasturtea betiko moduan hasiko da, martxoan.
Bai, hiruzpalau hilabete izaten dira, 18 klase inguru.
Eskolak sekulako arrakasta du, tokiak azkar betetzen dira.

Bai, beti. Joan den urtean zozketa egin behar izan zuten jende gehiegi zegoelako, baina tokatu zitzaidan.
Zu zara neska bakarra?
Bai. Aurreko ikasturtean neska batek izena eman zuen, baina lehenengo egunean ez zitzaion gustatu eta ez da bueltatu.
Bakarra izateak deseroso sentiarazten al zaitu?
Ez, niri berdin zait. Oso gustura noa eskolara eta erakustaldietara.
Gaur asko animatu zaituzte Irañetan.
(Kar, kar…) Beno, ez dakit.
Aizkoran teknika oso garrantzitsua da.
Aizkoran dena da teknika. Indarra ere behar da, eta erresistentzia pixka bat ere, besoetan gehienbat, baina teknika da garrantzitsuena, eta hor gabiltza.

Sakanako Herri Kirol Egunean parte hartu zuten herri kirolari eta irakasle guztiak, Amaia Gerrikagoitia teknikariarekin.

Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen diren gazteak, erakustaldian. Haien lana gidatzen, erdoziatarrak.

Andra Mari ikastolako bi bikote trontzalariak, ahalegin betean.

"Sakanakoa aizkora eskola bakarra da"

JUANITO ERDOZIA MAULEON AIZKORA ESKOLAKO IRAKASLEA

Beste urte bat Sakanako Herri Kirol egunean, eta urte mordoxka Sakanako Aizkora Eskolan.
Bai, urte asko. Sakanako Aizkora Eskolan 15 urte eramango ditut, eta Sakanako Herri Kirol Egunean, guztietan ez bada, gehienetan.
Oso kontentu ikusten zaizu, handik hona, Sakanako Aizkora Eskolako neska-mutilei erakusten, erakustaldia egiten… Halako egunek beste bost urteko bizitza ematen dizute.
(Kar, kar…) Egia da, niri poza ematen dit honek. Iruditzen zait ahal duguna egin behar dugula aizkoraren eta herri kirolen alde, bestela galdu egin behar direla. Ilobei esaten diet, etxera etorri eta egur batzuk puskatzen jakiteak bakarrik asko balio duela.
Badirudi kasu egin dizutela, ilobak ere aizkolariak atera zaizkizulako. Beste urte batez hor aritu zarete, hiru belaunaldiak: zu, Juanjo semea eta iloba lanean.
Bai, eta gustura.

78 urte dauzkazu, eta sasoi onean zaude.
Begira, pentsatzen ari naiz 80 urte betetzerakoan hirurek erakustaldia egin beharko genukeela, baina kanako enborrarekin, enborra handiagoa mozten. Ilobekin nabil, haiei erakusten, eta ikusten badut ongi ari direla mozten, hurrena kanakoa.
Zein ilusiorekin ibili diren Sakanako Aizkora Eskolako neska-mutikoak, ezta?
Bai, ilusio handia dute. Aizkora eskolara oso gustura etortzen dira.
Pandemia hasi zenetik lehendabiziko Sakanako Herri Kirol Eguna izan da Irañetakoa, eta murrizketak kendu zirenetik lehenengo erakustaldia.
Bai, eta jendea gogotsu zegoen. Okerrena izan da lau egunetan prestatu behar izan dugula dena. Sakanako Herri Kirol Eguna Sakanako Aizkora Eskolarekin parean izango balitz, eskolako neska-mutiko guztiak etorriko lirateke, baina ezinezkoa izan da. Ea hurrengoan.
Horrek martxoan martxan hasiko den Sakanako Aizkora Eskolan hasteko gogo gehiago emanen die.
Bai. Berehala Amaia Gerrikagoitiarekin bilduko naiz eta Nafarroako Diputazioari eskolarako zuhaitzak eskatuko dizkiogu, Diputaziotik ematen baitizkigute. Gero Manolo Gorritiri esango diot, berak botako ditu, gure bordara jaitsi egingo ditugu eta anaiarekin batera guztia prestatuko dugu, hurrengo urteko martxoan Sakanako Aizkora Eskola berriro prest egoteko.
Beraz, primerako osasunean zaudete guztiak: Sakanako Aizkora Eskola, aizkolariak eta Juanito eta Miguel Angel Erdozia, irakasleak.
Bai (kar, kar...) Nik badakizu zer esaten dudan? Euskal Herrian aizkora eskola bakarra dagoela eta guk ematen dugula. Euskal Herrian ez dago beste eskolarik. Eta hona kanpotik eskolara etorri nahi dute, baina ezin da. Ez dago tokirik. Garai batean ibili ziren Zegamako batzuk eta Bizkaitik ere denboraldi batean etorri ziren. Eta galdetzen digute, ea etorri ahal diren, baina hemengoekin nahikoa dugu. Berez, topea hamabi ikasletan dugu. Hamar urtetik hogei urtera bitartean hamabi aizkolari hartzen ditugu, baino aurten hamabost izan ziren. Batzuk kanpoan gelditu ziren, eta galdetu nion Amaiari ea hemengoak ziren, baietz erantzun zuen eta esan nion sar zitzala, baina gehienez hamabost.

Mikel Regil Fernandez Berrizko helmugara iristen. UTZITAKOA

Mikel Regil txapeldun handia Berrizko Ziklo-kros Sarian

ZIKLO-KROSA Quesos Albeniz-Burunda taldeko txirrindulari altsasuarrak garaipen garrantzitsua lortu du

Quesos Albeniz-Burunda taldeko Mikel Regil Fernandez altsasuarra ziklo-krosean primeran moldatzen dela ez da inolako sekretua. Joan den urtean Nafarroako selekzioarekin kadeteen mailako Espainiako Ziklo-kros Txapelketan aritu zen eta zilarrezko domina lortu zuen, Torrelavegan jokatutako proban ikusgarri aritu eta gero. Aurten ere kanpaina bikaina egiten ari da, bi garaipenekin borobildu duena: Villarcayoko lasterketa eta Berrizko Ziklo-Krosa.

Berrizek utzitakoa

Igandean altsasuarrak Berrizko Ziklo-Kros Sari Nagusian parte hartu zuen, junior mailan. Lasterketa azkar, lehiatu eta lohitsuan merezitako garaipen ederra lortu zuen Regilek (36:18), Galder Leiza Zuberorekin (Zorribike, 36:21) eta Egoitz Hoyas Figuerasekin (Seguros Bilbao, 36:26) lehia oso estua izan eta gero.

Bestalde, kadeteen mailan, bere taldekide Ekain Imaz Perez 25. postuan sailkatu zen (33:19.851), eta Hegoi Garcia Duran 61. postuan (39:47).

Espainiako Kopa eta bestelakoak

Urriaren 9an Espainiako Ziklo-kros Kopako lehendabiziko proban parte hartu zuen Mikel Regilek, Pontevedrako Ziklo-kros Sari Nagusian, eta hamargarren sailkatu zen, Raul Mira Bonastre irabazletik (42:11) 35 segundora.

Urriaren 16an Burgosko Medina de Pomarren bigarren sailkatu zen Mikel Regil, eta hurrengo egunean, urriaren 17an Villarcayoko lasterketa irabazi zuen eta Burgosko sailkapen orokorreko txapeldun izan zen altsasuarra. Larunbatean Trapagan parte hartuko du, eta igandean Legazpin.

Jose Luis Arrieta, Movistarretik kanpo

TXIRRINDULARITZA Nahiz eta Movistar Team taldeak ofizialki ez konfirmatu, Eusebio Unzuék El Paisen egindako azalpenek hala baieztatzen dute. Uharte arakildarrak ia 30 urte zeramatzan eskuadra nafarrari lotuta

Maider Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL

Astelehenean, urriaren 25ean, Carlos Arribas kazetariak El Paisen publikatutako artikuluaren titularra deigarria zen oso: "Movistarrek pedalkadaz aldatu du eta Arrieta zuzendaria alde batera utzi du". Artikuluan Movistarreko arduradun Eusebio Unzué Labianok adierazitakoak jasotzen zituen. Unzuék dioenez, "erabaki hori hartzea, pertsonalki, oso gogorra izan da, baina taldearen ongizateari begira hartu beharreko erabakia".Erabaki hau eta adierazpen hauek txirrindularitzaren munduan harridura sortu dute. Ez dira ulertzen, nahiz eta Movistar Team taldean egoera ez zela batere samurra kontu jakina izan.

Jose Luis Arrieta Lujanbio uharte arakildarrak ia 30 urte zeramatzan Unzuék gidatzen duen txirrindularitza taldeari lotuta. 1991 urtetik taldeko txirrindularia izan zen, eta Ag2r taldearekin txirrindulari izan zen bost denboraldiak izan ezik, –nonbait, Unzuék berak eskatuta–, beti egon da eskuadra nafarrari lotuta. Txirrindulari izateari utzi bezain pronto, taldeko kirol zuzendari lanetan hasi zen, orain arte.

Aurtengoa ez da Movistar Team taldearen urterik onena izan.

Jose Luis Arrieta, Movistar Taldeko bizikletekin. MOVISTAR TEAM

Emaitzek ez dute lagundu, ezta taldeko giroak ere. Ildo honetan, Jose Luis Arrieta Espainiako Vuelta zuzentzen egon ez izana oso deigarria izan zen. Vueltan gertatu zen ere Movistarren eta Superman Lopez txirrindulariaren arteko haustura, kolonbiarra bizikletatik jaitsi zenean. Ur nahasietan dabil UCI mailako estatuko txirrindularitza talde bakarra. Movistar Teamek taldearen garrantzia nabarmentzen zuen behin eta berriz, familia bat diren izpiritu hori, baina agerian dago emaitzen pean eta sare sozialei adi dagoen taldean bilakatu dela.

Guaixe Movistar Team taldearekin jarri da harremanetan, Arrietak ez duela jarraituko konfirmatzen duten jakiteko, baina erredakzioa ixterakoan oraindik ez zen taldearen erantzun ofizialik jaso; Jose Luis Arrieta Movistar Team taldeko webguneko staffean agertzen da oraindik. Momentuz, kirol zuzendariak ez du adierazpenik egin nahi, eta Movistar Team datorren denboraldia prestatzen ari da, Jose Luis Arrieta gabe.

Izaskun Beunza hirugarren Lizarrako Krosean

KROSA Bere taldeak irabazi zuen Kluben Arteko Nafarroako Txapelketa. Israel Arbizu zazpigarren izan zen

Igandean Los Llanosen jokatutako Lizarrako Krosak kros denboraldia mustu zuen. Aipatu lasterketa, aldi berean, Nafar Kirol Jolasen lehen jardunaldia izan zen, eta Kluben Arteko Nafarroako Txapelketa. Kategoria guztiak kontuan hartuta, 900 korrikalari inguru lehiatu ziren, parte hartze errekorra.

Lizarrako Krosean emakumezkoek 7,2 km eta gizonezkoek 9,3 km osatu behar izan zituzten, goiz hotz baina eguzkitsuan. Emakumezkoetan Beste Iruñako Estela Navascués izan zen txapelduna (26:11), Hiru Herriko Vanesa Pacharen (26:41) eta Beste Iruñako Izaskun Beunza olaztiarraren (26:43) aurretik. Horrela, Izaskun Beunzaren Beste Iruña izan zen Kluben Arteko Nafarroako Txapelduna.

Gizonezkoen mailan ere lasterketa oso borrokatua izan zen, baina, azkenean, Grupompleo Pamplona Atleticoko Javier Nagorek irabazi zuen (28:14). Hiru Herriko Israel Arbizu etxarriarra zazpigarren sailkatu zen (29:31), Asier Estarriaga etxarriarra (Beste Iruña) hamazazpigarren (31:19), Adur Senar lakuntzarra (Beste Iruña) 23. (31:41) eta Iraitz Senar lakuntzarra (Beste Iruña) 28. (32:09). Kluben Arteko Nafarroako Txapelketa Israel Arbizuren Hiru Herrik irabazi zuen, Ardoiren eta Beste Iruñaren aurretik. Klub txapeldunek Sevillan jokatuko den Espainiako Kluben Arteko Txapelketan aritzeko txartela lortu dute.

Izaskun Beunza. MONTXO A.G.

Ane Martija kantautorea grabatzen. UTZITAKOA

"Jendea nirekin abesten entzutea izugarria da"

ANE MARTIJA OLLAKARIZKETA KANTAUTOREA

Folk Ametsetan aurtengo edizioa mustutzeaz arduratuko da Etxeberriko bakarlaria astelehenean, azaroaren 1ean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Erkuden Ruiz Barroso ETXEBERRI

Aitortu duenez, "momentuz" ez dago urduri Ane Martija abeslari etxeberriarra. "Baina, noski, Irurtzunen izanda, ez dakit nola jarriko naizen". Folk Ametsetan zikloaren lehenengo emanaldia eginen du, bere lehenengo kontzertua Irurtzunen, "ia-ia etxean". Aurten egin du kantautore debuta. *Plaza zein taberna* abestia publikatu du.

Noiz hasi zinen abesten?

Abestu txikitatik egiten dut. Baina nire lehenengo kanta maiatzean grabatu nuen. Hortik aurrera kontzertuak ematen hasi nintzen. Ez daukat errepertorio handirik, eta nire kontzertuetan nire abestiak eta bertsioak sartzen ditut. Kantautoretzat jo dezaket nire burua abesti hori kaleratu nuenetik. Aurretik ere lagun batekin zerbait egin izan dut, emanaldiak ateratzen zitzaizkigulako, baina bakarlari moduan, aurten.

Zer nolako esperientzia izaten ari da?

Oso ona. Gainera, uste nuen urduriago jarri behar nintzela, eta nahiko lasai eman ditut kontzertuak. Publikoari gustatu zaizkiola uste dut.

Zer nolako abestiak sortzen dituzu?

Egia esan, pila bat kostatzen zait abesti bat sortzea. Prozesu nahiko arraroa da. Bakoitzak badu bere sortzeko modua. Denetarikoak sortzen ditut: emakumeek pairatzen ditugun egoera bereziak azaltzen dituen abesti bat dut, momentu jakinetan bizi izan ditudan esperientziak kontatzen dituzten abestiak... Momentuan ateratzen zaizkidan letrak. Sei edo zazpi abesti ditut.

Zerbait berezia edo leku jakin batean sortu behar duzu?

Nire sofan edo etxeko tokiren batean eseri behar naiz, eta inspirazioa behar dut. Momentuan sortu behar zait. Gertatu izan zait abesti batekin hastea, baina inoiz ez bukatzea. Momentuan edo egunean bertan ez badut bukatzen, gero ezinezkoa egiten zait aurrerago osatzea.

Emanaldietan bertsioak egiten dituzu ere. Zeintzuk?

Olatz Salbadorren abesti bat jotzen dut, Eñaut Elorrieta eta Idoia Asurmendiren beste bat, Katamaloren bertsioak ere egiten ditut. Gehienak euskaraz egiten ditut, baina baten bat ere gaztelaniaz egitea gustatzen zait. Azken finean, nik nire egunerokotasunean denetarik entzuten dut, eta publikoan nire gurasoak egoten direlako. Haiek ez dutenez euskaraz oso ongi ulertzen, esaten dut: "Hurrengo abestia nire amarentzat edo aitarentzat".

Kantautorea eta Folk Ametsetan zikloan parte hartuko duzu. Folk musika egiten duzu?

Justu oraintxe unibertsitatean horren inguruko lan bat egin dut. Bai, nire estiloa folk-pop inguruan dabilela esango nuke.

Nola garatu duzu?

Bakarrik sortu zait. Gitarra hartu, eta sortu da. Egia da gitarra ikasten ari nintzenean gehienbat horrelako abestiak ikasten nituela, eta nik uste horren inguruan ibili naizela beti akordeekin. Nahi gabe atera zait. Ez da pentsatutako zerbait izan.

Zenbait emanaldi egin dituzu, eta telebistan ere egon zara.

Sei edo zazpi kontzertu eskaini ditut. Telebistarena nik ere ez dakit nola sortu zen. Instagrametik Maddi Erauskinek hitz egin zidan, programa horretan lan egiten duen neska bat, nire anaia ezagutzen zuela. Jakin zuen abesti bat kaleratu nuela eta telebistara joateko esan zidan, eta baietz esan nion.

Eta nola izan da abesti bat grabatzearena?

Aspalditik neukan pentsatuta abesti bat grabatzea. Hori zen nire ametsa. Orduan, pandemiaren kontua gertatu zen. Urtarrilean, aurten, aitak esan zidan behingoz egin behar nuela egiteko neukan hori, bazekitela gustatzen zitzaidala. Nire gurasoek eman zidaten behar nuen bultzada. Interneten estudioak eta produktoreak bilatzen ibili nintzen eta azkenean aurkitu nituen estudio bateko bi produktore. Haiekin harremanetan jarri nintzen eta hasieratik oso jatorrak izan ziren. Abestia bidali nien, eta haiek moldaketak egin zituzten.

"PROZESU NAHIKO ARRAROA DA; BAKOITZAK BADU BERE SORTZEKO MODUA"

Zein da helburua?

Oraindik ez dakit zer egingo dudan. Buruan daukat beste abestiren bat grabatzea eta azkeneko helburua disko bat sortzea izango litzateke. Baina momentuz unibertsitatean nagoenez... Duela gutxi abestiaren bideoa grabatu nuen. Momentuan okurritzen zaizkidan gauzak egiten ditut, besterik gabe.

Zer desberdintasun dago kontzertuetatik grabatzera?

Niri pertsonalki kontzertuak ematea gustatzen zait gehiago. Behin bakarrik egon naiz estudio batean eta ez dakit zehazki nola funtzionatzen duten. Esperientzia gustatu zitzaidan. Baina zuzenekoaren gauza hori gustatzen zait. Gainera, nire kontzertuak planteatzean, abesti ezagun horiekin gustatzen zait jendea abesten entzutea. Askotan gertatu zait entzun dudala jendea abesten, eta hori niretako izugarria da.

Zer sentitzen duzu oholtzara ateratzen zarenean?

Beti dago hasierako momentu horretan ez dakit presioa deitu edo zer, baina lehenengo abestia jo ondoren ahazten dut dena eta jotzen dut, benetan, nire etxean jotzen egongo banintz bezala.

Zer dakar zuretzat Folk Ametsetan zikloan abesteak?

Kristoren ilusioa egin zidan Irurtzungo Udalarekin hitz egin nuenean eta behin kartela ikusi nuenean... Azken finean, kontzertuak ematea gustatzen zait, are gehiago publikoan gertuko jendea ikusten dudanean. Irurtzun nire etxean egotea bezala da.

Nolakoa izango da emanaldia?

Ordu bateko edo ordu eta zerbaiteko emanaldia izango da. Asko hitz egiten dut kontzertuetan. Lagunek esaten didate: "abestera etorri zara edo hitz egitera!". Oso naturala naiz. Abesti gehienak euskaraz izango dira, nire abestiak ere sartuko ditut eta baten bat ere gaztelaniaz egongo da. Printzipioz bilatuko dut jendeak nirekin abesteko aukera sortzea.

Dorotea album ilustratua aurkeztu dute

Amaia Egidazu Arrubek bere lana 2021eko Etxepare Sariko irabazlea da eta Pamiela argitaletxeak publikatu du. Liburuak natura, kultura, tradizioa eta traizioa biltzen ditu. Dagoeneko 2022ko edizioa martxan jarri dute

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Nafarroako 22 Toki Entitateko Euskara zerbitzuak antolatzen dute urtero Etxepare saria. Helburua haurrendako euskarazko album ilustratuak sortzea da, eta urtero bezala, Pamiela argitaletxearen eskutik saritutako lana argitaratzen dute. Ekainean jakinarazi zuten aurtengo irabazlea Amaia Egidazu Arrube zela *Dorotea* lanarekin, eta orain, udazkenean, liburua kaleratu dute.

Patxi Zubizarreta idazlea, Leire Salaberria ilustratzailea eta Idoia Sobrino liburuzaina izan dira aurtengo edizioaren epaimahaikideak eta *Dorotea* libu-

Amaia Egidazu Arrube 'Dorotea' albumaren egilea ipuinarekin. UTZITAKOA

ruaren testuaz esan dute, "paralelismoak, segidak eta errimak eskaintzen dizkigu, oihartzuna landuz, josta gaitezen". Ilustrazioaz honakoa esan dute: "Bihurrikeria, konplizitate dotorea, iradokizuna eskaintzen digu, iragana oraineratuz eta aldarrikatuz, diberti gaitezen".

Amatxi bakardadean egunerokoaren deserotasunean eta eragozpenen aurrean konponbide bila aritzen dela kontatzen du *Dorotea* ipuinak. Etxepare saritik aipatu dutenez, "Album petoa, oreka betekoa, istorioak eta ilustrazioak aldi berean irakur ditzagun". Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa biltzen ditu albumak.

Amaia Egidazu Arrube berriztarra da *Dorotea*-ren egilea. Umetatik naturarekiko begirunea izan du, eta zaletasun horrek biologia ikastera eraman zuen. Ingurumena eta energia berriztagarrien sektorean lan egin ondoren, haurren pedagogiarekiko interesa piztu zitzaion eta arlo horretako formakuntzetan murgiltzera bultzatu zuen. Gaur egun, amatasuna eta eskola aktibo bateko lana uztartzen ditu. Tamara Chubarovskyren errima sortak eta ipuinak euskarara itzuli eta moldatu ditu eta haurrendako ipuin kontaketak egiten ditu ere. *Dorotea* idazten eta ilustratzen duen lehen liburua da.

Saria

2021eko Etxepare Sariko albuma argitaratuta, sariaren antolatzaileak hurrengo edizioa prestatzen ari dira dagoeneko. Urtea hasi bezain laster saria aurkezteko baldintzak aurkeztuko dituztela jakinarazi dute. Aurreratu dutenez, haurrei zuzendutako album ilustratuak aurkez daitezke, album ilustratu bezala testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak ulertzen direlarik. Lehiaketan bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte har daiteke, eta egileek nahi beste lan aurkez ditzakete. Sari bakarra emango da: 5.000 eurokoa eta saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du. Lanak Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880, Leitza helbidera bidali behar dira.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa Altsasun

Astelehenean, azaroak 1, 17:30ean, Iortia kultur gunean lehenengo finalaurrekoa jokatuko da

SAKANA

Final laurdenak amaituta, hurrengo fasean sartu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa: Finalaurrekoak. Hiru saio jokatuko dira, lehenengoa, Altsasuko kultur gunean. Astelehenean izanen da, azaroaren 1ean, jaieguna, 17:30ean, eta sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian eros daitezke. Nafarroako Bertsozale Elkarteak Altsasuko Udalaren laguntza izan du saioa antolatzeko. Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin eta Oier Lakuntza Irigoien ariko dira Iortian. Lakuntza urdiaindarra eta Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra izanen dira Sakanako ordezkariak finalaurrekoetan. Lazkoz Berriozarren ariko da, azaroaren 6an.

Altsasuko saioa irabazten duen bertsolariak zuzenean eskuratuko du Iruñean, azaroaren 28an, jokatuko den finalerako txartela. Gainerakoek, Berriozarko, azaroaren 6an, eta Leitzako, azaroaren 14an, finalaurrekoak bukatu arte itxaron beharko dute sailkatzen diren jakiteko. Finalaurrekoetan hemezortzi bertsolari ariko dira eta horietatik zortzi sailkatuko dira finalera.

Altsasuko saioa irabazten duen bertsolariak zuzenean eskuratuko du Iruñean, azaroaren 28an, jokatuko den finalerako txartela. Gainerakoek, Berriozarko, azaroaren 6an, eta Leitzako, azaroaren 14an, finalaurrekoak bukatu arte itxaron beharko dute sailkatzen diren jakiteko. 24 bertsolari hasi ziren final laurdenetako fasean. Guztira hemezortzi bertsolari pasa dira. Horietatik zortzi sailkatuko dira finalean.

BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

40 urtetik aurrera hobekien geratzen diren ile mozketak

Ile mozketa egokienak, baita dentsitate txikia baduzu ere:

• **Pixie asimetrikoa:** Mozketa batzuek beti funtzionatzen dute; izan ere, ile finari bolumena emateaz gain, pixie-a mugimendua emateko, lepoa eta orokorrean irudia estilizatzeko da. Gainera, alde batera orraztuta, ile eskasia bikain disimulatzen du.

• **Shag mozketa:** Freskotasunagatik bikain egiten duen beste ile mozketetako bat shag da. Ilearen kizkur naturala aprobetxatzen du, mugimendu eta bolumena emanez. Gainera, etxean erraz orraztu daiteke. Nola? Ilea behetik lehortu eta lehorgailuarekin edo ilexaflarekin (plantxa) ukitu arinak eman, aire zabalean lehortzen utzi nahi ez baduzu.

• **Bob mozketa geruza ikusezinekin:** Bob mozketa masailezurraren parean, 40tik aurrera ileari dentsitatea emateko beste mozketa irabazleetako bat da. Ebakera hori edozein aurpegi formatara egokitzen da, baina mozketa zenbat eta luzeagoa izan, obaloak orduan eta biribilagoa behar du izan, eta zenbat eta motzagoa izan, obaloak luzeagoa behar du izan.

• **Bowl cut:** 40tik aurrera ileari dentsitatea emateko orduan mozketa oso egituratuen alde egin beharko genuke; geruzarik ez, hauek ilea asko fintzen dutelako. Mozketa mota honek ilearen erorketa naturala sustatuz, airean lehor dadin, bolumen handiagoa lortzeko. Estilo horiek, gainera, oso estilo zehatza ematen dute.

• **Long bob asimetrikoa:** Long bob mozketa, bere bertsio asimetrikoan, ile finentzat aproposa da, ia ez baita geruzetan mozten eta bolumena eta gorputza ematen baitizkio ile finari, estilistek mozterakoan erabiltzen duten teknikagatik pobretu gabe. Long bob ebakerak, punta desfilatuekin eta masailezurraren parean testurizatuekin, bolumen-efektu bat sortzen du, hori lortzeko plantxarik edo lehorgailurik erabili beharrik gabe.

• **Mozketa bularraren parean:** Ile luzearen eta motzaren arteko erdibidean, adats ideala aurkituko dugu bularraren parean, eta ezin hobea da ile luzeari dentsitatea emateko, puntak sendatzen dituen eta ileari testura eta lodiera ematen dion ebaki on baten bertuteak dituelako. Zalantzarik gabe, beste asmakizun bat looka aldatzeko orduan.

Cor Vivace abesbatza kontzertu batean. UTZITAKOA

Abesbatza bereziaren kontzertu "eklektikoa"

Bartzelonako Cor Vivace abesbatzak kontzertua eskainiko du igandean, urriak 31, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Abesbatzan lakuntzar bat dago: Gaizka Andueza Arregi

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Ezaguna da Cor Vivace abesbatza Lakuntzan. Alde batetik, Bartzelonako Gracia auzoko koruan Gaizka Andueza Arregi lakuntzarra tenorea delako, eta, bestetik, 2016an Happy kontzertua eskaini zutelako. Bost urte beranduago, eta pandemia bat erdian, Cor Vivace abesbatza "berezia" Lakuntzara itzuliko da. Abesbatzako kideak "gogotsu" daude kontzertu "polita" eskaini zutelako, eta bizitako esperientziaren ondoren abesbatzako kideak "itzuli nahi" zutelako. Aurten egiten duten hirugarren kontzertua izanen da, eta emanaldi "eklektikoa" izanen dela esan du Anduezak. Igandean, urriaren 31n, izanen da, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean.

Abesbatza berezia da Cor Vivace, koru klasikoetatik urruntzen dena. Abesti modernoak, gaur egungoak, interpretatzen ditu, eta musika instrumentuen laguntza izan ohi dute. Koreografiak ere egiten dituzte. Haien errepertorioak musikalez eta pop-rock estiloko abestiez osatutako dago; "XX. eta XXI. mendeko musika egiten dugu". Lakuntzan igandean eskainiko duten kontzertuan, besteak beste, *Crepúsculo* filmeko *A thousand years*, *Schrek*-eko *I'm a believer*, *Sister Act* filmeko *Hail Holly Queen*, *Fame*, Chicagoko *And all that jazz*, Mamma Miako *Dacing Queen* eta *Thank you for the music*, Queen taldearen *Bohemian Rapsody* eta gospel abesti bat eskainiko dute. "Eklektikoa".

Errepertorioa

Pandemiagatik Cor Vivaceren entseguak eten zituzten iazko martxoan, eta, urte bat ondoren,

COR VIVACE 2016AN EGON ZEN LAKUNTZAN, ETA "ITZULTZEKO GOGOA" ZUTEN

aurtengo apirilean jarri ziren berriz martxan bi taldetan banatuta. Momentuz, kontzertu bakarra eskaini dute aurten, Bartzelonan, eta bihar, urriak 30, Zigoitian egongo dira, Araban, eta igandean, urriak 31, Lakuntzan. Beraz, kontzertu berezia izanen da Lakuntzakoa. Urtero errepertorio berria osatzen dute eta 2020an ikuskizun berrirako abestiak prestatzen hasi ziren. Film ospetsuen soinu banden kontzertua izanen zen.

Baina pandemiagatik bertan behera utzi behar izan zuten ikuskizun berria, eta egoera berrian ezin izan dituzte abesti berriak prestatu. Hortaz, abesbatzaren ibilbidean egindako errepertorioetatik zenbait abesti hartu dituzte. "Jendeari asko gustatzea espero dugu". Koru berezi bat denez jendeak ez duela espero esan du lakuntzarrak. "Ez daude oso ohituta horrelako abesbatzak entzutera, baina aurreko aldian oso ongi hartu zuten". Aurten "gutxienez" esperientzia errepikatzea eta jendeari "asko" gustatzea espero du, "behintzat, ongi pasatzea".

2020ko otsailean, pandemiaren aurretik, abesbatzaren hamargarren urteurrena ospatzeko aukera izan zuten. Ehun kide inguruk osatzen dute korua, baina orain koronabirusarekin parte hartzea murriztu dela azaldu du Anduezak: 80 bat pertsona daude. Musika talde erraldoi bat da, eta adin tarte guztietako jendea dago. Zaharrenak 80 urte inguru ditu eta gazteenek 20. Lakuntzara talde txikiago bat helduko da, 50 pertsona inguru. Kotxez etorriko dira. "Gogo handiarekin daude aurreko aldian etorri gienenean jendea itzultzeko gogoekin gelditu zelako". Aurten aukera sortu da.

"Abesbatzaz gauza asko gustatzen zaizkit. Lehenengoa, abestea, gustatzen zaidalako, baina esperientzia izugarria da horrelako abesbatza batean parte hartzea; ehun pertsonekin abestea". Taldeko energia "oso berezia" sortzen dela esan du Anduezak. Lakuntzarra 2013 inguruan sartu zen. Musika gustatzen zaio, Lakuntzako musika eskolan akordeoia ikasi zuen, eta abestia betidanik gustatu izan zaio. Aurretik beste abesbatza batean zegoen, baina Cor Vivace kontzertu batean ezagutu zuenean, "asko gustatu" zitzaion eta abesbatza batean sartzeko proba egin zuen. "Ez da abesbatza profesionala, baina gutxieneko batzuk behar dira. Irakurtzen azkartasuna izatea, eta abestiak entzuteko eta errepikatzeko azkartasuna".

"Taldea batuta badago, dena ongi doa"

Lizarragako portua igo, tunela pasa, eta eskubian dago Lizarragako benta. Nieves Perez Bergaretxeak han lan egiten du. Baina igandean du azken laneguna, jubilatu eginen baita. Hamalau urtetatik aritu da lanean

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Nieves Perez Bergaretxea Lizarragako bentako zerbitzaria, jubilatu eginen da.

1 Zenbat denbora daramazu bentan lanean?
Zabaldu zenean egon nintzen. Ondoren, Altsasura lan egitera jaitsi nintzen, etxetik gertu nuelako, portua jaisten orkatz batek jo ninduelako... Oroitzapen atsegina nuen. Beti penatu ninduen jaitsi izanak, eta hemen lan egiteari utzi eta bentara bueltatu nintzen. Hura, pixka bat, nire etxea da.

2 Zergatik da zure etxea?
Lankide eta nagusi onak izan ditudalako. Lankideak dira ez nagusiak, pixka bat familiakoak bezala dira. Nire bigarren etxea da, han nirean baino ordu gehiago pasatzen baditut ere.

3 Mila metrotara dagoen etxea da.
Igotzerakoan, askotan, lainoa dago. Gogorra da, egun batzuetan lainoa jasotzen ez delako. Tentuz igo eta jaitsi behar zara. Edo elurra egin, eta autoetatik elurra kendu behar izan digute atera ahal izateko. Baina gauza asko ematen ditu. Ditudan bezeroak, familia bezala babesten zaituztenak. Laguntza ugari. Behar baduzu, edozeini eskatu eta laguntzen dizu. Mendizale eta txirrindulari ugari. Bihotzean ditut. Pasako jende asko, bueltatzeko aukera badu, pasa eta agurtzen zaitu. Eta beti eskertuta daude. Ni haiei ere. Ostalaritzan asko jasan beharra dagoela esaten dute. Ez dakit. Denok dugu izaera, baina pertsona bati ongi hitz egiten badiozu, errespetatzen baduzu, eta edukazioz jokatu, sekula ez duzu talkarik. Ditudan bezero on guztiei eskerrak besterik ezin dizkiet eman. Egun hauetan jasotzen ari naizen maitasuna... Jendea, propio, agurtzera joan da. Hori ez da ahazten.

4 Hainbeste urteren ondoren komunitatea sortu duzue?
Bai. Funtsezkoena da hor lan egin dugunean taldea garela. Ez gara nagusia, langilea... Taldea gara. Taldea batuta badago, dena ongi doa.

5 Zer eskaintzen du bentak?
Sukaldaria dena da. Bera gabe ni ezin izanen nintzatekeen egon. Nire lankide, laguna, zapia, ahizpa izan da. Estutu dezakezu eta sekula ez du ezer esaten. Atera, atera eta atera aritzen da. Sukaldeak ez badu funtzionatzen... etxeko sukaldaritza, gure amonen eta gurasoena bezalakoa. Azkenerako jendeak hori bilatzen du, gustura jaten duena. Han txistorra pintxoa erregea da.

6 Bertako produktuak saltzen dituzue?
Mendiko artzainen gazta saltzen dugu. Eta nagusi den txistorra. Pintxoan bakarrik saltzen dugu, baina kanpokoa delako edo ona dagoelako eskatzen badizu, eta baldin badugu, saltzen dugu.

7 Beti ostalaritzan lan egin duzu?
Ez. Orain bolada luzea daramat ostalaritzan. Baina urtetan fabriketan lan egitea tokatu zitzaidan, eta asteburuan ostalaritzan aritzen nintzen. Guztiz desberdinak dira. Beharbada ostalaritza gogorragoa da, asko ibiltzen zara, baina bizigarria da. Lantegia piezak, piezak, piezak, piezak egitea da. Monotonoagoa da. Abantaila da zubiak, opor egunak jarraian, ordutegi finkoa dituzula. Ostalaritzan sekula ez diot erlojuari erreparatu. Pozik gelditu naizenean, gauzak ongi eginak utzi ditudanean, itxi eta etxera noa.

8 Ostalaritza bokaziozko lana da?
Ez dakit. Beti esan dut: ohetik jaiki eta bezeroekin egotera joateko gogorik ez dudanean, hobe dut etxean gelditzea.

9 Pandemiarekin, zer moduz?
Guztiagatik izugarri gogorra izan da. Ezin izan dugu lanik egin. Pentsa han goian: terraza, eta eguraldi txarra. Denetarik tokatu zaigu. Oso gogorra izan da. Eta etxean egondako egunak ere, egoera ikusten duzulako. Nire nagusia izan banintz, ez dakit. Hor izan gaitu, tiratu dugu. Guztiendako gogorra izan da, berarendako eta guretako.

10 Zein plan duzu iganderako?
08:15ean lanean hasi eta ez dakit noiz bukatuko dudan. Igandero bezala utziko dut, astelehenetan jai baitut. Batzuek galdetzen didate atzera kontua egiten ari naizen. Ez ditut sekula kontatu. Orain pentsatzen ari naiz zer eginen dudan gora joateko 08:00etan etxetik atera behar ez dudanean.

11 Eta, zer eginen duzu?
Seme bat Iruñean bizi da, eta gutxi ikusten ditudan bilobak ditut. Beste seme bat Gasteizen dut. Gehiago elkartzeko aukera gehiago izatea. Hori baitu ostalaritzak, gainontzekoek jai dutenean zuk lan gehien egiten duzu. Loreak ere asko gustatzen zaizkit. Eta utzita ditudan lagun ugari ditut. Familia inportantea da. Hiru semeen babes ikaragarria izan dut, eta, egia esan, batzuetan faltan sentitzen ditut. Ez dakit nola, baina modu desberdinean bizitzen hasiko naiz.